




**Hemen dira
Sanandresak**

Arg.: M. Albu



MUNDUATE ERLOJUTEGIA orain zure BITXIDENDA BERRIA

- ★ Diseinu Italianoak
- ★ Japoniar perla kultibatuak
- ★ Urre eta altzairuzko azken nobedadeak

OSO PREZIO INTERESGARRIAK ETA POLTSIKO GUZTIENTZAT

Kale Nagusia, 1-2

88 12 72

ORDIZIA

Munduata erlojategia, 1888az geroztik



KEMEN
KIROLAK

Zumalakarregi, 1
88 51 68
ORMAIZTEGI

ORMAIZTEGIKO JAIK 1996

Alkatearen agurra

Ormaiztegiarroi, eta egun hauetan gure artean izango zareten kanpotar guztioi agur bero bat.

Gure herriko festa hauetan, eguneroko lan eta arazoak ahaztuz, elkartasunean pozik igarotzen saia gaitzela. Guztioi saia gaitzela jarrera baikor eta konstruktibo baten bidez bakoitzak ahal duen neurrian, iritzi desberdinak errespetatu eta arazoei konponbidea bilatzen.


Eta bukatzeko gogoan izan ditzagula gure artean ez dauden edo sufritzen ari diren herritar guztiak.



ORMAIZTEGIKO UDALA

Argitarapen honen edizioak laguntza:

En la edición de esta publicación colabora:



IRIZAR



GURE ESTRATEGIA:

**BEZEROARI
ZERBITZATU ETA
BALIOA ERANTSI**

GURE GILTZARRIAK:

**KALITATEA
ZERBITZUA
KOSTUA
BERRIKUNTZA**



**FELIPE PRINTEA
SARIA ENPRESA
BIKAINASUNARI**
95 eta 96 urteetan:
- Diseinu Industrialak
(1995)
- Kalitate Industrialak
(1996)



**URTEKO
AUTOBUSA**
94 URTEAN
BRITAINIA
HANDIAN



**URTEKO
AUTOBUSA**
95 URTEAN
ESPAINIAN



San Andres 6-8 ORMAIZTEGI
88 19 00 - 88 16 50. Faxa: 88 91 01



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

**Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)**

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Gabino Murua,
Izaskun Salazar, Koldo Urresta-
razu, Urko Irastorza, Josune
Amondarain, Xabier Urteaga,
Eduarne Albizu, Aitziber Murua,
Miren Etxezarreta, Idurre Eski-
sabel, Irune Urbitarte eta Naiara
Etxeberria.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.200 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**2.000 milioiko inbertsioa eta
200 lanpostu sortuko ditu Irizarrek**

Irizar kooperatibak 2.000 milioitik gorako inbertsioa egingo du datorren urtean, Ormaiztegiko lantokia haunditzen. Ingu-
ruan dituen lurretan egin-
go lirateke lanak. Horre-
kin batera, 200 lanpostu
inguru sortzea aurrikusi
du.

Eskaera zerrenda han-
dia du azken urteotan Iri-
zarrek eta horri aurre egi-
teko asmoz hartu da era-
bakia. Inbertsio berri ho-
nekin, produkzioa bikoiz-
tu nahi da. Hau da, gaur
egun 3 autobus eta erdi
egiten badira egunean, 6
autobus egitera iritsi nahi
da. Hori bai, autobus ga-
ma handitzea ez da Iriza-
rren helburua, dagoena
mantendu eta hobetzea
baizik.

Arrasate Kooperatiba

taldean sartuta dago Irizar.
Urte txarrak pasatu bazi-
tuen ere, hazkundera eten-
gabekoa da orain. 1995ean, esaterako, 9.300 milioiko fakturazioa eta 1.000 milioiko irabaziak izan zituen. Aurten sal-
mentak 11.000 milioitara
inguratzea espero da. Es-
tatu espainiarreko rankig-
nen lehenengoa dugu Or-
maiztegiko kooperatiba
eta bere izena daramaten
luxuzko autobusak mundu
osoan zehar dabilta. Txi-
nan autobus enpresa ireki
zuen iaz eta orain Brasile-
ko enpresekin harreman-
tan dago nazioarteko za-
balkundearekin jarraitze-
ko asmotan.

Kalitatearen sari ugari
jaso ditu Irizarrek. Azken
bi urteotan esaterako, Fe-
lipe Printzearen bi sari.

BOTA BERTSOA



Iker Zubeldia

Gaztainak

Doinua: Mendian gora.

Marroiska du kolorea
gaztainondoen lorea
babesten duen arantz oskol bat
badauka ordea.
Eta bere zaporea
sagarra baino hobea
afari on bat egin ondoren
postre dotorea.

Erreta ta egosita
parerik gabeko pinta
mahai ingurua adornatzeko
aukera polita
plater batean jarrita
sagardoa nahasita
sekula inon ez da egongo
gaizki ikusita.

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



Caceres-ko oroitzapenak

Azkenean, larunbat goizean (azaroak 9), Caceres-ko euskaldun arnasaren tripa-zorria ahantz arazi genuen. Goizean goizetik, espetxe-ko eta inguruetako egunerokotasuna hautsi genuen. Larri ziren bai, bertako kolore guztietako zakur eta kartzeleroak autobusetik jeitsi eta gure musika eta oihi ozenak, gose greban zeuden presoek, baita gainontzekoei ere, barrenera ino heltzen zitzaizkiela ikustean, segituan hasi ziren mehatxuka; helburua, herri oso baten indarra ixilean pasatzea.

Espetxeko zuzendariarentzat, cadena SER-entzat eta bertako herritarrentzat komunikatu batzuk genituen, azken hau banatzea benetan debekatu zigutelarik. Lotsagabeki, herria ezagutzeko eskubidea ere ukatu egin ziguten. Beraien lurretan ibiltzeko ez omen gara pertsona normalak.

Hala eta guztiz ere, espetxeko zuzendariari komunikatua eman ondoren, eta autobusari Euskal Herriako norabidea hartzen besterik ez ziotenez uzten, bi pertsona taxis-ean, atzetik disimulorik gabeko sekreta eta guzti, cadena SER-era joan ginen. Esan, bai taxista eta baita cadena SER-eko langileek ere, benetan, oso ondo hartu gintuztela, gertatzen zenareki-

ko beraien harridura ezkuta ezina izan zelarik. Ezin sinisturik zeuden, nola zitekeen "estatu demokratiko" honetan, adierazpen askatasuna era honetara ukatzea. Eta berriro hara joateko gonbitea jaso ondoren, gure lurrera, etxera abiatu ginen; etxera, gure herkidea, espetxean utzita. Oraindik borroka luzea daukagula jaketu ginen. Euskal preso guztiak Euskal Herrira ekartzeko borroka hau, malkarrez josia dagoela ohartu ginelarik. Bukatzeko, hemendik agur bero bat, Caceres-ko 011705 plakadun polizia nazionalari, guardia zibilei... erakutsi ziguten profesionaltasun ustelagatik.

Besterik gabe... Aupa Atxo! Aupa Tortzi! Aupa Fernan! Aupa Euskal preso politikoa guztiak!

Aitziber Irazusta
(Zaldibia)

Hipokresiarik ez!

Goierriko EGI-ri zuzenduta. Nola ulertzen da, zuen eskutitza --oso polita-- espainiar ejerzitoaren aurka egin eta gero eguneroko bizitzan bere alde egitea? Hemen dituzue adibide batzuk:

- Zuen nagusiek OTAN-en alde propaganda egiten dute, Euskal Herriak OTAN-i ezetza eman zionean. OTAN ez al da

erakunde militarra?

- Ez al zarete gogoratzen zuen nagusiak (Retolazak) bandera espainiarra eman ziola espainiar ejerzitoari?
- Ze hitz polita "independentzia" eta zuen nagusiak herri honetako etsaia den nazionalismo espainolari besarkadak emanaz.
- Ze hitz polita den "matxinada" eta herri honetan matxinatu den guztiaren aurka azaldu zarete beti.
- Ze hitz polita "autodeterminazio erreferenduma" eta herri honek espainiar estatuarekin duen gatazkari irtenbidea emateko dagoen proposamen bakarraren aurka azaltzen zarete. Ez duzue ETA-

ren alternatiba demokratikoaren alde hitz erdi bat ere esan.

- Espainiar ejerzitoaren "UIR"-en buruzagitza Arakara ekartzea euskaldunok hartzen ditugun erabakiak gertuagotik kontrolatzeko direla diozue. Herri honek hartzen dituen erabakiak kontrolatu eta aurka egiten lehenengoak zuek zarete. Espainiar etsaiak kontrolatzen dituen datu guztiak zuen galbaetik pasatakoak dira.

Ez zaitezte hipokritak izan. Hitz horiengatik herri honen seme-alaba hobere-nak hilda edo espetxean daude. Hitz gutxiago eta ekitza gehiago.

J. R. Arratibel (Lazkao)

Besteek esana



“ Legez libre egon beharko luketen 120 presoek askatasunaren giltza gobernuak du eta aldiz Ortegaren itzulera, soilik gartzeleroen jarrera aldaketaren baitan dago”.

JUAN MARI OLANO

Amnistiaren Aldeko Batzordeetako bozeramalea
HERRIA EGINEZ

“ Oroimen ona izateko burua gauza xeleebrekin bete behar da, bertsoak kantatuz edo errezatzen lortzen dut nik hori. Asko abesten dut. Garrantzitsua baita ere, otorduetan ez asetzea; hau da, beti gose pixka batekin gelditzea”.

BARTOLO AIERBE

Idazle gaintzarra
ARGIA

GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.

Hiribarren, z/g

☎ 88 80 23 LAZKAO

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

HIRIBARREN, 24

☎ 88 95 83

LAZKAO

TXANDAKA

Kantzontzilo premian

Albiste bitxien barruan sailkatu dugu, barregura sortzen duten horien artean. Ez da gutxiagorako: Ertzaintzak pertsona bat atxilotu du azalera handiko denda horietako batean, 18 kantzontzilo eta 5 kuleru lapurtu dituelako. Ez du argitu gizonzkoa edo emakumezkoa den; gaztea edo edadetua; lapurretara xelebre hori egin duela bakarrik.

Fetixista? Lehendabiziko kolpean horixe otu zaigu, baina ez dirudi oso hipotesi fidagarria denik, horiek, normalean, erabilitakoak nahiago izaten baitituzte. Zerk bultzatzen dezake, orduan, bere onean dagoen pertsona bat, han inguruan izango zituen irati-kasete edo telebista aparailuren bat ostu ordez, 18 kantzontzilo eta 5 kuleroren jabe egitera? Beharrak, premiak... Elementala, Watson maitea.

Behin ondorio honetara iritsita, albistea gaizki sailkatu dugula ohartu gara: ez baitu batere barregarrik ematen XXI. mendearen atarian, gure gizarte ongizateko, solidario eta demokratiko honetan inor kantzontzilo edo kuleroren faltan egoiteak. Tristeia egoera, alajainetan!

Zaire aldera begira jartzen garenean malko potolo-potoloz betetzen zaizkigu begiak. Eta halaxe behar gainera, krudeletan krudelena baita bizi duten egoera. Baina begi malkotsuak, lausotu eta itsutu egiten zaizkigu sarri, gure inguru hurbilean pobrezia zantzuak sumatzen ditugunean. Baina jakin ezazue, azaroaren 16ko gauean 46 urteko gizon bat hil zela Santurtzikoko jatetxe bateko atarian, ez jatekorik, ez aterperik zuelako.

Idurre Eskisabel Larrañaga



Politikariek euskara gehiago erabili behar al dute?



Mikel Dorronsoro


30 urte, langilea
beasaindarra

Bai. Progaganda asko egiten dute besteek egiteko eta beraiek gutxi erabiltzen dute. Euskal politikariek ejenploa eman behar dute.

Mikel Izagirre

21 urte, langabetua
beasaindarra

Konparazio bat bakarrik: Kataluniako nazionalistek estatu mailako telebistan ere katalanez egiten dute. Hemen go politikariek ETBn ere erderaz entzuten ditugu.



Arantxa Murua

32 urte, langabetua
lazkaotarra

Bai. Dena egin beharko lukete euskaraz. Beharra da, hemengo politikoak direnez hemengo hizkuntza erabil dezatela.



Poltsak

Oinetakoak

Bidaia artikulua

**Nagusia, 13
BEASAIN**

**Sta. Maria, 15
ORDIZIA**




**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

**Oriako Pasealekua, 20
88 87 02
BEASAIN**



Xikel



BANATZAILEA

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK**

- ✓ Barnizatuak
- ✓ Lakatuak
- ✓ Espilluarekin
- ✓ Persianilla

Senpere Merkatalgunea - 38 lokala
Erakusketa: 161606 - Mugikorra: 908 772107

BEASAIN

ZINEA

GOIENIZ:

Abenduak 5, 'La invasion de los ladrones de cuerpos' eta 'El increíble hombre menguante', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Jovenes y brujas'. Ostirala 29: 22:15; igandea 1: - 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 2: 22:15.

'Tormenta blanca'. Larunbata 30: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Tiempo de matar'. Ostirala 29: 22:15, larunbata 30: 19:30 - 22:15, igandea 1: 19:30 - 22:15; astelehena 2: 19:30.

'Dracula un muerto muy contento y feliz'. Igandea 1: 16:45.

'Trainspotting'. Ostirala 6: 22:15, larunbata 7: 19:30 - 22:15, igandea 8: 22:15, astelehena 9: 19:30.

'El profesor chiflado'. Igandea 8: 19:30 - 22:15.



'La invasion de los ladrones de cuerpos' Don Siegel (EEBB, 1956)

Zientzia-fikziozko zinema-klasiko nagusietako bat izaki, estralurtarren inbasio baten istorioa kontatzen digu, gizakiak arimarik gabeko izakiez ordezkaturik lurralde osoan zehar hedatzeko arrisku bizia sortuko delarik. Gaiaren indarrak eta kontakera mamitsuak bideratuta fantasiako, fikziozko, eta zine beltzaren mugaz gaindi eramango gaitu, hotzikara eta beldurraren eremuetan.

'El increíble hombre menguante'

Jack Arnold (EEBB, 1957)

Hodei erradioaktiboen eraginpean egoteagatik gizon bat pixkanaka txikitzen hasten da, bere ingurunea tamaina izugarriko mundu mehatxugarri bihurtuko delarik. Aurrekontu apal batez eta neurri desberdineko 14 dekoratuz, Jack Arnoldek fantastiko arloan sekulan egin den filmerik aztoratzaile eta originaletako bat osatu zuen.

MUSIKA

ORMAIZTEGI:

Azaroak 30, Maixa eta Itziar taldea, Zubipe kiroldegian, 23:30etan.

HITZALDIK

ORDIZIA:

Abenduak 3, 'Lanik gabe zer?' gaiari buruzko hitzaldia, Tomas Etxaberen eskutik, Ordiziako Kutxaren lokalean, 19:15etan. Antolatzailea: ESK-CUIS.



Abenduak 3, Patxi Zubizarretak 'Literaturari'-ri buruz hitz egingo du, Barrenan, 19:30etan, Liburu Astearen barruan.

Abenduak 4, 'El deseo de leer' gaiari buruzko hitzaldia, Victor Morenoren eskutik, Barrenan, 19:30etan, Liburu Astearen barruan.

ERAKUSKETAK



BEASAIN:

Azaroaren 29ra arte, Javier Fernandez erakusketak eta diapositibak emanaldia, Aterpe Tabernan.

Abenduaren 9ra arte, 'Mugaren gainetik' ONGaren 'Garapena eta ingurugiroa' erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoa.

ORDIZIA:

Abenduaren 2tik 5era, 'Nola egiten da liburu bat' erakusketa, Barrenan.



Abenduaren 9tik 15era, 'Zabaltzaileak: Leizaola, Lizardi, Aitzol, Rezola' erakusketa, Barrenan.

INYELEC

MoviLine



MoviStar

Banatzale ofiziala

16 07 85

lurre Auzoa

OLABERRIA



Aterki eta poltsak, bidaietako artikulak, konponketak, gerrikoak, etxeko diseinuak...

San Inazio, 2

BEASAIN

16 09 65

Errementari, 5

TOLOSA

67 41 43

Abenduaren 9tik
15era, 'Araba Errioxako ardoak' erakusketa, Barrenan, 'Araba Errioxako IV. Astea' ren barruan.

ORMAIZTEGI:

Abenduaren 1era arte,
Pedro Diaz-Obregonen pintura erakusketa, Kultur Etxean.

TAILERRAK

BEASAIN:

Abenduak 3, Harizko koadroak egiteko haurrentzako tailerraren hasiera, Ezkiaga Auzo Etxean, 17:30etan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Abenduak 1, Otsabiora (801 metro).

Abenduak 8, Ballora.

Idiazabalgo mendizaleak:

Abenduak 1, Bidania-
Ernio.

Ordiziako mendizaleak:

Abenduak 1, Finalista-
ren eguna.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Lana:

☐ Kitarra jotzeko klaseak hartu nahi nituzke. 160744. Eguerdietan deitzeko 885513.

☐ Neska euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. 889547 eguerdian.

☐ Eskusoinuak konpon-tzen dira, marka eta modelo guztiak. 47 00 01. Arratsaldeko 5etatik 7etara deitu, ostegunetan izan ezik.

☐ Gaixoak, edadekoak eta haurrak zaintzeko prest nago asteburuetan. Erizaina eta esperientziaduna naiz. 65 34 69. Nerea.

Salerosketak:

☐ Zerrarako egurra eskeintzen da. 161451 telfonora eguerdian deitu.

☐ Trialeko Gas Gas Con-tach T-25 motorra salgai. 21:30etatik aurrera deitu 883629 telefonora



GOARDIAKO FARMAZIAK

29-30 - abenduak 1: Laur-naga.
2: Cuesta.
3: Arriola.
4: Urbizu.
5: Atorrasagasti.

6: Azpilikueta.
7-8: Urbizu.
9: Jauregi.
10: Lournaga.
11: Cuesta.
12: Arriola.

 **PEUGEOT**
AGENTZIA OFIZIALA
SANTA ANA GARAJEA, S.L.

☎ 88 16 89 - ☎/Faxa: 88 08 67

Urdaneta, 74 - 76



ORDIZIA

IKASTEK AKADEMIA


Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Unibertsitarioak
- ✓ Oposaketak
- ✓ Kurtsoak

Maila eta arlo guztiak
Zentru homologatua

☎ 16 01 20 Joan Iturrialde, 5 BEASAIN

IBAI-ONDO



ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C. ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g

☎ 880543 BEASAIN

DEKORAZIOA

- ✓ Lanparak
- ✓ Lore lehorrak
- ✓ Opariak

Urdaneta, 25 ORDIZIA



JOSTAILU DENDA

- ✓ Jostailuak
- ✓ Joku didaktikoak
- ✓ Pelutxeak

Urdaneta, 24 ORDIZIA



Gose grebalariak eta euren babesa azaldu duten goierritarrek.

**Astebeteko
gose greba
egin zuten 15
goierritarrek
Donostiako
Artzain Ona
katedralean.
Azaroaren
20an
prentsaurrekoa
eman zuten eta
hona bertan
esandakoak.**

Azaroaren 16tik 23ra gose greba egin genuen goierritarrok, gure eskualdeko preso enegoera larria dela bide, salaketa gogor bat kaleratu nahi diogu Euskal Herri osoari.

Goierriko 24 preso Frantzia eta Espainiako 18 espetxe desberdinetan aurkitzen dira sakabana-turik dispersioaren ondorioz. Hau dela eta, euren senide nahiz lagunek, astero-astero 12.054 km. egin behar dituzte errepideetan barna beraien bizitza arriskatuz.

Guzti hau, gobernu Espainiar eta Frantziarrak, dispersioa neurri politiko gisa inposatzearen ondorioz izan da, zein gure preso eta hauen senideentzat zigor bikoitzean bihurtu den.

Zigor hau gutxi balitz, 24 preso goierritarretarik bostek kalean egon behar lukete kondenaren 3/4a betea dutelako. Hauen artean aipatzekoa da Joxe Migel Azurmendiren ka-

Euskal presoak Euskal Herrira

sua. Goierritar hau 18 urtez espetxean egon arren, orain dela 3 urte egon behar litzateke kalean.

Honez gain, espetxeetako funtzionarioek sufritu arazten dizkien irain, mehatxu, tratu txar, jipoi eta presoentzat benetako tortura bilakatzen diren trasladoek, ehundaka txapeo eta gose greba egitera bultzatu dituzte. Gaur egun 20 preso ditugu gose greban, hauen artean Karlos Ioldi goierritarra.

Ez dugu amaitu nahi Juan Mari Insausti goierritarren atxiloketa salatu gabe eta, polizia Frantsesaren esku, oinarritzko giza eskubideak beteko ote diren zalantza adierazi gabe.

Euskal presoak Euskal Herrira ekimena gogorra da, are gogorragoa presoek espetxeetan daramaten borroka. Hau dela eta gure gose greba euskaldun guztientzat jarraitu beharreko adibide bat izatea nahiko genuke, zuen denon indarra eta laguntza beharrezkoak izango ditugulako Euskal presoak Euskal Herriratzeko.

Goierrri eskualdeko 49. txandako gose grebalariak.

Azpian sinatutakook zera eskatzen dugu:

- 1- Euskal preso politikoen sakabana-tze politika ez legezkoa izateaz gain, zigor gehitua suposatzen du presoentzat eta zeharka dohaineko zigorra senitarte-koentzat. Horregatik neurri hori salatu eta berehala amaitu dadin exijitzen dugu.
- 2- Nahi duten euskal preso guztiak, nola soziala ala politikoak, lehenbailehen Euskal Herrira ekarriak izan daitezela.
- 3- Euskal preso politikoei elkarbizitzarako baldintza duinak izan ditzaten.
- 4- Aurrekoa bermatzeko Euskal Herriko karteletan kokatuak izan daitezela.
- 5- Gizaki orori bezalaxe, dagozkion oinarritzko eskubideen aplikazio integrala exijitzen dugu.
- 6- Botere publikoei giza-ziatiar eta justiziazko eskakizun hauek aurrera ateratzeko beharrezko diren medioak praktikan jarri eta erabaki politikoak har ditzaten.
- 7- Honako akordioak Espainiar eta Frantziar gobernuak igortzea erabakitzen dugu, eta Euskal Herriko instituzioei honako ebazpena berea egin dezaten gonbidapena luzatzen diegu agiri honen bidez.

Patxi Zubizarreta, Xabier Mendiguren Elizegi eta Tere Irastorza idazleak, Dionisio Amundarain idazle eta euskaltzalea, Iñaki Aierbe, Aitor Furundarena, Kaki Arkarazo eta Xabier Sarasola musikoa, Joxe Mari Telleria pintorea, Joxe Ramon Soroiz eta Mikel Garmendia aktoreak, Joxe Ramon Agirre 'Marron', Iker Sukia eta Xabier Aldanondo kirolariak, Joxe Martin Apalategi antropologoa, Joxe Felipe Auzmendi eta Jon Elortza kazetariak, Joxepa Madariaga bertsoetako gai-jartzailea, Iñaki Murua, Mikel Mendizabal, Patxi Iraola, Igor Eguren eta Aitor Sarriegi bertsolariak, Mikel Sarriegi dantzaria, Lutxi Zaldia emagina, Maixel Zuhaitz AEK-ko irakaslea, Joxe Mari Lizarraga preso ohia, Ramon Lizarraga Goierriko Objeto Taldeko kidea, eta Goierriko LABeko ordezkariak.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



ELOLA

ALTZARIAK

Poeta Lizardi, 2

TOLOSA

Tfnua. 65 29 01

18

HILABETE

Interesik gabeko finantzaketa

ERREZETA



Maribi Dorronsoro
Ostatu jatetxea
Gabiria

FLANA

Osagaiak: Litro 1 esne, 5 arrautza eta 5 goilara-kada azukre.

Flan ontzian azukrea erreta (karameloa) jarri. Beste ontzi batean arrautzak eta esnea ondo nahastu eta flan ontzietan banatu. Labea Maria bainuan jarri. Eginda dagoen ala ez jakiteko, orratz bat sartu. Orratza lehorra ateratzen bada, eginda dagoen seinale. Izozki eta gain piska batekin zerbitza daiteke.

AHOLKUA

Neguko loreak

EGUBERRIKO LOREA:

- Bere **loraldia** udazken bukaeratik negura bitartean izaten da, baina udaberrira arte ere luza daiteke. Landare honek egun motza behar izaten du, bere kolore gorri hori mantentzeko iluntasuna behar baitu.

- **Argitasun** naturala nahi izaten du, neguko eguzkia ondo hartzen du.

- **Temperatura** 12-21°, baina zerbait hotzagoa ere nahi izaten du, baina izotzik ez.

- **Ureztatzapena:** hezetasuna mantenduko dugu, astean bi aldiz. Lorealdia bukatutakoan astean behin nahikoa izango da.

- **Hezetasuna:** Hostoak ihinzatu egunero, honela hostoak garbiagoa izango ditu.

ez dauka lehortzerik, hala gertatuz gero, saiatu ur epeletan pertza batean sartzen, burbuilak aterara arte.

- **Hezetasuna:** Ihinzatu egunean behin karerik gabeko urarekin.

ZIKLAMENA:

- Bere **loraldia:** udazkenetik udaberrira.

- **Argitasuna** asko gus-tatzen zaio, kontu handia eduki behar da eguzkiarekin.

- **Temperatura** egokiena 7-15° egunez, gauerako 5° jaitsi beharko da.

- **Ureztatu** beti azpian plateratxo jarrita. Aste-an bi aldiz nahikoa izaten da. Uda aldera lorak ximeldu egiten dira, bere deskantsu garaia izango da. Orduan astean behin ureztatu behar da. Berririo hosto berriak azaltzen direnean, maizago ureztatu behar da.



Miren Etxezarreta
Muguet loradenda

Garai honetan lore ezagunenak hiru hauek izango dira: azalea, ziklamena, eta nola ez, Eguberriko lorea.

AZALEA:

- Bere **loraldia** naturala apiriletik maiatzera da, baina negutegietan udazkenera aurreratzen dute.

- **Argitasun** asko behar du, baina ez eguzkitan.

- **Temperatura** 13-15° gehienez.


- **Ureztapena:** kare gabe-koa behar du izan urak eta 2 egunez behin ureztatu behar da. Azaleak



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

Autowag, s.a.



Gasolina eta Diesela

☎ 88 82 54 - 88 82 62 - 888266
N-1 errepidea, 419 Km BEASAIN



- Esku lanak
- Ihastaroak
- Opariak

☎ 67 39 07
Euskal Herria, 11
IBARRA

☎ 88 40 56
Andra Mari, 5
BEASAIN



Etxegaraten peajerik ez

Goieki garapen agentzian zenbait alkatek (HBekoak ez) bile-ra izan zuten Etxegarateren gaia aztertzeke. Plazaraturiko idatziak dioenez, "behin eta berriro Etxegarateko bikoizketa gauzatzea eta 1997tik aurrera, urteroko aurrekontuetan partida egoki eta jarraitu bat izatea eskatzen dugu. Bikoizketa peaje planteamenduari derri gorrez zertan loturik ez dagoela derizkiogu, borondate politiko bati baino". Era berean, Udaletxe bakoitzean eta Goiekiko mahai politikoan debate hau berriro planteatzea eta N-laren aldeko plataforma konbokatzea ere erabaki dute. Jose Julian Irizar Garraio eta Errepide diputatuari ere eman-gio diote erabaki honen berri.

HBk bere aldetik, Donostian eman zuen prentsaurrekoa. Besteak beste, Itsasondoko Joxe Mari Otegi eta Zaldibiako Iñaki Elizegik hartu zuten parte. Irizar Diputazioko Garraio eta Errepide diputatua gezurretan ari dela esan zuten. "Dirurik ez dagoela eta bidesaria jarri beharko dela esan du, eta hori ez da horrela". Etxegarateko bikoizketa atzeratzea "lehentasun politikoen ondorioa da", HBren ustez. Elizegik gogorazi zuenez, 1987-92ko EAEko errepide planean jadanik aipatzen zen Etxegarateko bikoizketa lehentasunezko lana zela. Gero 1993-2004ko planaren baitan sartu zen. "1996. ur-

tean gaude eta gai hau berriro mahai gainean jarri da, baina kasu honetan bidesariaren mahuarekin. Lehenengo aldia da bidesaria aipatzen dena Gipuzkoan errepide bat eraikitzeke". HB ez zen Goierriko alkateen bilera joan, "ez baita gai honi buruz eztabaidatzeko modurik egokiena". Eztabaida bideratzeko udal guztietan mozioa aurkeztuko dute.

Gipuzkoako PSOE-EE ere, Etxegaraten bidesaria jartzearen kontra dago. Lan hau diru publikoarekin finantzatu behar litzateke. "Errepideak foru aldundien kompetentzia dira; beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu behar du Etxegarateko bikoizketa", diote sozialistek.

Segura - Zegamako arazoa

Joseba Telleria Segurako kronistak Segura aldetik jakitera eman digunez, Etxegarateren inguruan, Segurako Udalak azaroaren 20an hartutako erabakia haxe da: bikoizketa lehenbailehen egin eta bidesaririk gabekoa izan behar duela. Peajea jartzeak, ondorio txarra ekarriko luke Segura eta Zegama bezalako herrientzat. Bidesaria ez ordaintzeagatik, Otzaurteko bidea hartuko luke hainbatek eta kontutan izanda Etxegaratek egunean batazbesteko 30.000 ibilgailuren trafikoa duela, milaka kotxe pasa litezke egunean herritik.



Juan Mari Insausti

Beasaindarra azaroaren 19an atxilotua izan zen Bordelen. ETAko aparatu logistikoko kidea izatea leporatzen dio Poliziak. Atxiloketa unean bi pistola automatiko omen zituen kargatuta eta erabiltzeko moduan.

Espainiako Gobernuak bere extradizioa eskatu du. Ormaiztegin Guardia Zibilaren izan zen atentatua egiteko

datuak bildu zituen Insaustik, Espainiako Gobernuaren arabera. Era berean, Ricardo Marti Fluxa Segurtasunerako Estatu idazkariak adiera duenez, Insaustiri atzemandako dokumentazioa aztertzen ari dira; bertan "zenbait sorpresa topatuko diren esperantzan".

28 urte ditu Insaustik eta Poliziaren esanetan, Goierri komandoko kidea izan zen 1991n talde hori desegin zuten arte.

Antton Garcia de Molino

Preso dagoela 15 urte bete dituen honetan, omenaldia eskaini zitzaien azaroaren 24an Ordizian. Castellongo kartzelan dago une honetan Garcia de Molino.



Autobus zerbitzua

Eskualdeko Garraio plana egin du Gipuzkoako Diputazioak. Zerbitzua hobetzea du helburu. Era honetan, Gaiara eta Etxabe autobusek osatuko lukete enpresa berria. Era honetan, 4 linea egongo lirateke: Zumarragako Ospitalera, Legorretatik abiatu eta Itsasondo, Ordizia, Beasain eta Ormaiztegin geldituz. Zaldibia-Idiazabal linea, Ordiziako Euskal Pilota, Arboleda, Ordizia kalean eta Malkaskon geldituz. Ataun-Lazkao lineak bi norabide izango ditu, Beasain eta Ordizia aldera. Eta Zerain, Zegama, Segura linea, Idiazabal-Zaldibia linearekin lotuta egongo da.



Enpresaberri

Gipuzkoako Diputazioak Goieki garapen agentziarekin batera, 'Enpresaberri' programa jarri du martxan. Helburuak hauexek dira: Gipuzkoan enpresak, eta batez ere mikro-enpresak, sortzea, eta horretarako Gipuzkoan laguntza eta aholkularitzako zerbitzu homogeneoa ematea enpresa-proiektua landu eta proiektuaren bideragarritasuna aztertzeke garaian. Hau guztirako diru-laguntzak eskainiko ditu Diputazioak. Eskerak abenduaren 15aren aurretik egin beharko dira. Jose Antonio Santano Diputazioko Ekonomia Zuzendariak aurkezpenean adierazi zuenez, 'Enpresaberri' sinadura daraman proiektua *"labeldun proiektua izango da, garantia osoa izango du, ondo landutako emaitzak aterako baitira."*

Informazio gehiago edo proiektua aurkeztu nahi izanez gero, Goiekin duzu aukera.

Egin Mus

Joseba Larrauri eta Berna Lopez legorretarrak bigarrenak izan dira VII. Egin Mus txapelketan. Axentxio Mintegi eta Felix Beloki basaindarrak, berriz, laugarrenak.

Errolda

Lan Sozialerako Unibertsitate Eskolako 2. mailako ikasleek Euskal Herrian ekintza desberdinak garatzen dituzten talde eta elkar-teen errolda egin nahi dute. Talde eta elkar-teen hauek 65 urte baino gehiago duten pertsonengatik zuzendu eta gestionatuak behar dute izan. Harremanetan jarri 460172 telefonoarekin.

Karlos Argiñano

Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak urtero ematen duen Espainiako Elikagaien Saria Karlos Argiñanok jaso du. Gastronomiaren inguruko interesa pizten egin duen lanagatik eman diote saria.

Ordizia-Tolosa

Bi herrietako lagunez osatutako ezkon bikoteak asko dira. Azaroaren 17an bazkaria egin zuten amankomuneko herriak dituzten bikote hauek. Bikoterik zaharrena omendu zuten: Ordiziako Maximo Arana eta Tolosako Pilar Colinasek osatua. 47 urte daramazkitez konduta.


Liburuak

Patxi Zubizarreta ordiziarrek 'Sinbada marinelen historia' liburuak kaleratu du Pamiela etxearekin. Ekialdeko tradiziozko narrazio sorta da. Frantseseko bertsiotik zuzen-zuzenean itzuli du ordiziarrek.

Miel Angel Mintegi basaindarrak, berriz, 'Mila esker Marlow' nobela kaleratu du. Nobela beltza da.

Joseba Jaka

Euskaigintza Elkarlanean fundazioa sortu berria da. Joseba Jaka euskaltzale zenaren ideia zen martxan jarri den hau. Euskararen eta euskal kulturaren sorkuntza, sustapena eta garapena modu eraginkorrean bultzatu nahi ditu fundazioak. Kulturgintza eta euskal kulturaren geroa herritar guztion eginkizuna eta erantzukizuna dela uste du, eta horren ardura erakunde publikoena ezezik herrian eta gizartearen diharduten gizon-emakumeena, taldeena eta elkarteena ere bada fundazioa. Mari Jose Irizar basaindarra, Jaka zenaren emaztea, da fundazioaren zuzendaria.




Aitor Furundarena

Euskadi Gazteko gabon kantaren musika Aitor Furundarena ordiziar soinu-joleak egin du. Hitzak Harkaitz Canorenak dira. Abenduaren 5ean aireratu-ko da doinu berria.

Javier Palacin

Javier Palacinek afizionatu mailako Kaiku taldean egingo du hurrengo denboraldia. Profesionalek saltoa eman aurretik, 4 denboraldi egin zituen talde honetan bertan. Euskadi Taldean aritu zen Palacin azken denboraldietan baina bere *"portaera txarra"* zela eta, taldetik bota egin zuten basaindarra.



Iñaki Azurmendi

Arriarandarrak irabazi zuen azaroaren 24an Zaldubian jokatu zen Euskal Herriko 3. mailako aizkolari txapelketa. Hiru kanardiko eta bi 60 ontzako enbor nork azkarrago moztu izan zen lana. Azurmendik berehala hartu zuen aurea eta 13 minutu eta 51 segundu behar izan zituen lana amaitzeko. Iñaki Aierbe ataundarra ere finalista zen, baina osasunez pital xamar zebilenez, azkeneko momentuan, Mikel Jauregi 'Altzo' zaldibitarrek hartu zuen parte. Sailkapenean 11. egin zuen 'Altzo'k. Finalean, berriz, punta-puntan ibili zen bigarrenarekiko segundu bakarrera bukatu baitzuen. Sailkapena ikusirik, Iñaki Azurmendi mailaz igoko da, 2. mailara hain zuzen ere.

SEGURAKO KLAUSURAKO MOJEKIN BERRIKETAN

Bizitza beste ikuspegi batetik

Aspaldidanik genuen biok moja hauen berri jakiteko gogo eta jakinmin honek bultzaturik jo genuen ostiral arratsalde hartan Segurako moja frantziskotarren komentura. Atea jo eta serora batek ireki zigun; nor ginen esan ondoren gela batera eramán gintuen eta, esan behar, zirrara galanta somatu genuela hura ikustean; burdinsarea izan zen lehenengo ikusi genuen gauza, baina, Angelita eta Axunekin lehen hartuemanak izan ondoren, ez ginen burdinsareaz ohartu ere egin.

- Zerk bultzatuta hartu zenuten moja sartzeko erabakia?

- Orain baino elizkoiagoa zen jendea. Komentura joanez gero, Jainkoa gehiago maitatuko genuela uste genuen. Ginen baino hobeak izateko esperantzarekin. Horrekin ez dugu esan nahi kanpoan daudenak gaiztoak direnik, desberdinak beste-rik ez.



Frantziskotar kongregazioko hemezortzi moja bizi dira Segurako komentuan, hauetako bi izan ezik, beste guztiak klausurako mojak dira.

- Nolakoa da komentu barruan egun arrunt bat?

- Goizeko seietan jeikitzen gara. Kapilan "laudes" (gorespenak) erreztatzen ditugu. Meza izan ondoren gosaltzera eta gero bakoitza bere lanetara (baratzara, sakristiara, gaixoak zaintzera, parrokiako arropak garbitzera...) joaten gara. Bazkialurretik, eguerdiko otoitzaldia egiten dugu eta bazkalondoren, arratsaldeko errezoa, "nona" deritzana. Gero berriz, bakoitza bere lanetara. Zazpitan otoitzaldi bat egiten dugu eta zortzi terdiak aldera afaltzen dugu, laster oheratzen garelarik.

- Ez al zen zentzuzkoago izango jendeari zuzenean laguntzea eta ez komentu barruan erreztatzuz?

- Zuzeneko lanean diharduenak, otoitzean ari denaren laguntza behar du, hark egiten ez badu guk egingo dugu bere alde. Gure lana ez da ikusten, eta aldiz beste horiena bai. Guk nahiago dugu barruan egon eta beste motako laguntza bat eman.

- Egungo gaztediaz zer deritzozue? Asko aldatu al da zuen garaitik?

- Egungo gazteak onak eta txarrak daude, lehen bezalaxe. Hala ere asko aldatu

da gure garaitik. Beste modu batera pentsatzen duzue.

- Jainkoarenganako maitasunak saihesten al du beste maitasun mota bat izatearen galera? Ez al duzue bikote harremanen falta sentitzen?

- Ezkontzari buruz ez dugu inoiz pentsatu, bestela komentutik aterako ginateke. Bai baitaukagu irtetzeko aukera nahi izanez gero. Hasieran proba gisan urtebeterako hartzen dugu botoa, baina, orain komentuan gauden denok bizi osorako botoak hartuta ditugu.

- Komentua aurrera ateratzeko zein baliabide dituzue?

- Orain arte lan asko egin dugu. "Eredu"rako egiten genuen lan baina, orain gehienak adinekoak garen ezin izaten ditugu eskatzen dizkiguten lanak garai egin. Kotizatu duguna kobratzen ari gara eta horri esker bizi gara.

- Pentsatzen dugu ez direla gazte asko egongo zuen artean; zenbat urte dituzte zaharrenak eta gazteenak?

- 86 zaharrenak eta 60 gazteenak. Argi ikusten da komentuak ez duela etorkizun oparorik.



Nafarroa Etorbidea, 9

88 94 82

BEASAIN



88 00 44

LAZKAO-ETXE

● JATETXEA ASTEBURUETAN ZABALIK

● NEKAZALTURISMOA

→ 4 logela, beren bainugelekin

→ Gosari, bazkari eta afariak

Aiestaran erreka

ZALDIBIA

- Zergatik uste duzue gaur egun jendeak ez duela moja, apaiz edo fraide izateko bokatiorik?

- Munduan gauza erakargarri asko dago eta, jendea engainatzen dutenak gainera; hau dela eta, bokazioa falta da. Lehen seme-alaba gehiago izaten ziren eta normala zen baten bat moja edo praile izatea, baina, orain familia bakoitzeko seme-alaba kopurua urritu egin da.

- Ingalaterran ba omen dira ez-kondutako apaizak. Zer irizten diozue honi?

- Ez dugu honi buruz asko pentsatu. Baina, elizak onartuko balu ez genioke eragozpenik jarriko. Familiari gehiago begiratu beharko lioke apaizak eta hori eragozpen bat izango litzaiteke nahiz eta hori ere Jainkoari eskaintzea izan.



Gazterik sartzen ez dela eta bertakoak zahartzen ari direla ikusita, beltza du etorkizuna Santa Isabel komentua este hainbatek bezala.

- Emakumeak noiz meza ematen?

- Nik neuk (Angelita) urrutiko gauza bezala ikusten dut, hala ere ez nioke kontrako boturik emango. Nik (Axun) berriz, luze baino lehen etorriko dela uste dut.

- Ez al duzue pentsatzen eliza jokoan kanpo dagoela egungo gizarte aldrebes honetan?

- Bai, zertxobait bai. Gure garaitik asko aldatu da egoera. Baina, oraindik ere 600 seglar teologia ikasten ari direla ikusteak frogatzen du badagoela elizarenganako interesa. Baina, jende gazte gutxi joaten da elizara. Esan behar, gu ere hasiera batean behartuta joaten gine-la.

- Moja izatearen alde inak eta txarrak.

- Alde txarrik ez diogu ikusten. Gu-retzat denak onak dira.

- Ugariak izaten al dira jasotzen dituzuen bisitak?

- Urte sasoi honetan ez, baina, gabonak inguratzen direnean ugariak izaten dira. Bi lokutorioak beterik egoten dira.

- Uzten al duzue komentua inoiz, zein arrazoirengatik?

- Mediku eta dentistarengana joateaz gain, kurtsilo batzuk egitera ere irtetzen gara; izan ere, Pio XII.ak federazio bat egin zuen eta bi urtez behin, kongregazio honetako guztiak elkartzen gara. Gipuzkoako gotzaitegiak ere elkartzen gaitu Gipuzkoako kongregazio desberdinetako mojak.

Esan behar, gusto handiz jan genituela gure bi lagunek eskaini zizkiguten gailetatxoak eta ardo goxoa ere ez zegoen makala.

Hainbat kontu astindu genituen gaileta eta gaileta artean: ikasketak, familia, festak... etabarri buruz hitz egiteko aukera izan genuen eta, bide batez, iritzi desberdinak elkargurutzatu genituen.

Irune Urbitarte
Naiara Etxeberria

OSKARBI
OINETAKOAK

Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 ORDIZIA

GESTORIA Biok
ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58
Goierrri, 12 ORDIZIA

OSTASUN
BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua
Goierrri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA

KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIAKOA
Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak


Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

JOSEBA REZOLA OMENDUKO DU GOIERRIKO EGIk ABENDUAN

"Alderdikidea, gudaria eta euskararen bultzatzaile sutsua izan zen"

Joseba Rezola ordiziarra hil zela 25 urte beteko diren honetan (abenduen 26an hil zen), Goierriko EGik omenaldia eskaini nahi dio. "Joseba Rezola nor izan zen jakinarazi nahi diegu gazte eta ez hain gazteei. Alderdikidea, gudaria eta euskal kulturaren eta euskararen bultzatzaile sutsua izan zen bera", argitu dute.

"Euskadiren alde borrokatu eta hil zen heroi anonimoen belaunaldi haren historia idazteke dago. Ahaztu ezin dugun eredu eta sinbolo bat dira. Gure gazteek ez daukate kanpora joan beharrik beraien poster edo kamixetentzako heroien bila; etxean daukate, agian euren familietan. Gure mendietako trintxeretan edo eskursio pelotoi baten aurrean hiltzeko bezain konformagaitz, disziplinat, sakrifikatu, idealista". Esaldi hau esaten zuen Joseba Rezolak eta EGiko gazteek beretzat hartu dute. Rezola Ordizian jaio zen 1900. urteko apirilaren 18an. 14 urterekin hasi zen EAJn militatzen. "Etxe ondoan daukaguna ez du ezagutzen askotan. Joseba gudari bat izan zen eta gudari baten barruan alderdikidea. Alderdikidea, gudaria eta euskal kultura eta euskara-



ren bultzatzaile sutsua izan zen Rezola. Gerran parte hartu izan zuen. Defentsako lehendakariordea izan zen. Kargu politiko asko izan zituen, Gipuzkoa Buru Batzarreko kontseilari eta lehendakari. Jaurilaritzako lehendakariordea ere izan zen Leizaolaren garaian", argitu digute EGikoek.

Gerra Zibilaren garaian "Euzko Gudarostean bera izan zen militar nagusia. Faxistak gerrarekin hasi zirenean bera izan zen Gipuzkoako Defentsako idazkari nagusia. Gipuzkoa galdu zenean, Bizkaira pasatu zen eta bera izan zen Euzko Gudarosteko arduradun nagusia. Era berean, bera gai izan zen Euzko Jaurilaritzan zeuden alderdi politiko guztiak batzen. ANVeko komu-

nistekin edo sozialistekin lasai asko ibiltzen zen. Izugarritzko gaitasuna zuen jende ezberdinekin lan egiteko", esan digute.

Dena den, "gerran ibilitakoa bazen ere, bakearen aldekoa zen. Armak noiz hartu eta noiz utzi jakin behar zela zioen", argitu dute.

Santoñan heriotzera zigortu zuten. Lauzpabost urtera askatu eta Francoren garaian erresistentzian ibili zen Madrilén, bertara desterratu baitzuten. Klandestinitatean, Iparraldean euskal kulturaren inguruan ibili zen. Gerra hasi aurretik Goierrin euskal antzerkia bultzatzen, dinamizatzen aritu zen.

Beti batean eta bestean aritzen omen zen. Era horretan, besteak beste, 50.000eko hamarkadan Demokristau Internazionalak sortzen aritu zen. Venezuelan lehenengo Euskadi Irratiaren fundatzailea izan zen.

Leizaola, Lizardi eta Aitzolen belaunaldiarekin harremana izan zuen. Hori dela eta, omenaldi honetara 'Leizaola, Lizardi, Aitzol. Belaunaldi baten giltzarri' erakusketa ekarriko da Ordiziako Barrenara, abenduaren 10etik 16ra bitartean.

Joseba Rezolaren omenaldiko ekitaldiak

Abenduak 10: 'Leizaola, Lizardi, Aitzol. Belaunaldi baten giltzarri' erakusketaren inaugurazioa, Ordiziako Barrena Kultur Etxean.

Abenduak 13: 'Joseba Rezola, Gerra Zibila eta Erresistentziari buruzko hitzaldia' Eduardo Jauregik (Rezolaren biografiaren egilea) eskainia, 20:00etan, Barrenan.

Abenduak 16: Erakusketaren amaiera.

Abenduak 22: Ekitaldi politikoa Ordiziako Herri Antzokian, 12:30etan. Hizlariak: Aitor Oiartzabal (Ordiziako EGiko kidea), Joseba Egibar (GBBko Lehendakaria) eta Xabier Arzailluz (EBBko Lehendakaria).

Abenduak 26: Joseba Rezolaren heriotzaren 25. urteurrena. Eguerdiko 12.30etan, Oroigarriaren agertzea, aureskua eta lore eskaintza. Ordu batean, luntxa Ordiziako Batzokian.



☎ 88 55 00 ORDIZIA



- "Iberikoak", gaztak, foie-ak
- Errioxako ardo eta cava-k

Gabonetako saskiak

Zumarralde, 2
☎ 88 77 55
Faxa: 88 34 31
ORMAIZTEGI

Ormaiztegiko jaien egitaraua

Azaroak 29, ostirala:

18:30etan: Festei hasiera emanaz suzirien jaurtike-ta.

19:00etan: 'Tximeletak' txarangak herriko kaleak alaituko ditu buruhandien laguntzaz.

21:30etan: Kuadrilen afariak bakoitzak bere txo-koan.

00:00etan: Herriko kale-etan tanborrada, Zubipe Kiroldegitik Enparantza Nagusira.

Ondoren Tximeletak txaranga goizalderarte.

Azaroak 30, larunbata: San Andres eguna:

10:00etan: III. San Andres artisautza erakusketa.

11:00etan: Etxeko txi-



kientzat Zumalakarregi enparantzan umeen parkea eguerdira arte.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Umeen tanborrada.

12:30etan: Odolki lehia-keta.

13:00etan: Odolki dastaketa eta sari banaketa Baso-Txulo elkartean. Ondoren

ospakizuna alaitzeko txalaparta saioa.

16:00etan: Umeen parkea.

19:00etan: Mozorroen desfilea.

23:30etan: Maixa eta Itziar, Zubipe Kiroldegian, herriko gazteek antolatuta.

00:30etan: Mozorroen dantza.

03:00etan: Karaokea.

Abenduak 1, igandea:

10:00etan: Sub-23, kadete eta gazteen XXXII. San Andres ziklo-kross saria.

11:00etan: Umeen parkea.

12:45etan: Hamaiketa-koa eskainiko du Udalak Eliz atarian, Bardulia elkar-tearen laguntzaz.

16:00etan: Umeen parkea.

18:30etan: IV. San Andres pala txapelketaren finala Zubipe Kiroldegian (J.M. Gorostidiren oroime-nez).

21:45etan: Suziriak Caballer pirokteniaren eskutik.

22:15etan: Festen amaiera.

Comercial MARKEL

Zumarralde, 2
Tfnoa - faxa:
161556
ORMAIZTEGI

- ✕ Iturgintza eta elektrizitatea
- ✕ Berogailuak
- ✕ Burdindegia

ELEKTRAGAILU DENDA

ARANTXA

taberna

Pintxo eta ogitartekoak

San Andres, 13
Tfnoa.: 88 28 22 ORMAIZTEGI

JOSETXO

San Andres, 31
☎ 882772 (etxea)
161366 (arrandegia)
ORMAIZTEGI

SAN ANDRES GARAJEA

AIMOSPORT
COMPETICION

**AUTOMOBILISMO KIROLERAKO
BEHAR DEN GUZTIA**

☎ 88 28 15
Zumarralde, 8
ORMAIZTEGI

ESTANKO

janaridenda

- ✕ Egunkari eta aldizkariak
- ✕ Opariak
- ✕ Eskolako gaiak
- ✕ Mertzeria

Festa onak pasa!

☎ 88 77 24
Serapio Mujika Plaza, 3
ORMAIZTEGI

**KALITATEKO
EUSKAL OKELA**

**IÑAKI KANPOS
AUTOZERBITZUA
EROSLE**

- ✕ Bertako haragia
- ✕ Odolki, txorizo eta tripaki bereziak

Zumalakarregi, 4
☎ 88 28 27 ORMAIZTEGI

JESUS MARI DEBAK ODOLKIAK EGITEKO ENPRESA JARRI DU

Ormaiztegiko odolkia Euskal Herri guztirako

Odolkiak egiten dituen enpresa ireki berria dute Ormaiztegiko Jesus Mari Deba eta bere emazte Milagros Eliasek. Ezkio-Itsasoko industrialdean. Irailan hasi ziren martxan. Duela 22 bat hasi ziren odolkiak egiten harategirako. Orain ordea, harategia utzi, eta odolkiak egitera bakarrik dedikatzen dira. Harategi eta jatetxeetara banatzen dituzte odolkiak.

Osasun sailak "behartuta" jarri dute enpresa martxan. Odolkiak, barazki eta arrozduak, eta mondeju txuriak egiten dituzte Ezkio-Itsasoko lantokian. Goierri eta Gipuzkoan aldean batez ere, barazkiekin egindako odolkiak saltzen dira, Bilbo eta Gasteiz inguruan, arrozduak. Dena den, Gipuzkoan bertan ere, erdaldun jendea dagoen lekuan batez ere, arrozduak



gero eta gehiago sartzen ari dira merkatuan.

Mondeju txuriak ere egiten dituzte baina aitortu digutenez, "Goierri aldean ondo saltzen dira, baina hortik aurrera oso gutxi".

Irailetik ekainera bitartean egiten dituzte odolkiak. "San Martin inguruan topera ibiltzen gara. Hori bai, eguraldi hotzarekin guk hobeto lan egiten dugu".

Odolkiei normalean espezierik ez die botatzen. Oreganoa bakarrik, eta udan eurek biltzen dutena. "Porruak eta tipulak ere bertakoak dira. Kalitatezko produktuekin kalitateko

odolkiak ateratzen dira", azpimarratu dute. Odolki masa guztiak probatzen omen dituzte. Eta beste sekretu bat, odolkiak poliki-poliki egosten dituzte. "Odolkiak egosteko denbora asko behar du, poliki-poliki egin behar da. Babarrun goxoenak ere poliki-poliki eginda egoten dira. Gizarte honetan produzioa da garrantzitsua eta ez kalitatea".

Makinaria ez dute askorik modernizatu. "Lehengorari eutsi nahi diogu, momentuz behintzat. Alde handia dago eskuz edo makinaz egin. Porruak eta tipulak hori bai, makinarekin txiki-

tzen ditugu. Izen bat hartzea asko kostatzen da, baina berehala gal daiteke. Jendea oso gustora dago daukagun mailarekin eta horri eutsi nahi diogu. Gu duela 22 bat urte hasi ginen odolkiak egiten Poliki-poliki hasi ginen, porruak eta tipulak eskuz txikitu eta masa hestean hatzarekin sartzen genuen. Urtetik urtera salmentak gora doaz. Lehiaketa askotan sariak irabazi ditugu eta horrek asko laguntzen du. Bereziki Beasaingo lehiaketa irabaziz gero, asko laguntzen du", diote.

San Martin egunez II. Munduko Odolki txapelketa jokatu zen Bilbon. Arrozduak odolki lehiaketa, hain zuzen ere. Finalistak izan dira Debatarak aurtan ere.

Lantokiaren logotipoan 'Ormaiztegiko odolkia' jartzen du. "Ormaiztegiko odolkiak beti izan du fama. Izena Beasainek eman die baina Beasaingoak baina fama handiagoa izan du Ormaiztegiok".

ITSASO
apaindegia

San Andres, 31
☎ 88 06 24
ORMAIZTEGI

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu!

* Illeapaindegia

* Estetika

* Masaiak

ESTEBETEAK
JESUS MARI DEBA
"ORMAIZTEGI" ODOLKIAK



- Berdura eta arrozdu odolkiak
- Mondejuak

Nekazaritza eta
Arrantza Sailak
baimendua

Bereziak
harategi eta
jaketxeetarako

Anduaga Industrialdea, 9
Zumalakarregi Plaza, z/g

☎ 72 17 10
☎ 88 26 59

EZKIO-ITSASO
ORMAIZTEGI

ALFREDO MOSTAJO PUNTA PUNTA AUTO GIDARIA:

"Euskal Herrian zirkuitua guztiz beharrezkoa da"

Alfredo Mostajo auto gidariak 31 urte ditu, legazpiarra da eta Ormaiztegin bizi da, bertako San Andres garaje-an lan eginez. Gaztetandik motor lasterketetan ibiltzen bazen ere, autoekin 93an hasi zen. Lehen bi urteak AX kopan egin eta iaz ZX kopara pasa zen. 230-240 km/orduko abiadura hartzen du, 210 zaldiko autoarekin. Karrozeria Citroen ZXena bada ere, auto espezifiko bat da, erabat aldatuta dago.

Auto honekin bizpahiru podium egin eta Jaraman lasterketa irabazi zuen. Aurten, Albacete eta Montbelon irabazi ondoren sailkapenean bigarren jarri zen, baina Italian huts egin zenez, denboraldia bukatzeko lasterketa bat falta denean 4. dago sailkapen orokorrean. Irabazteko aukerarik ez badu ere 2. postua lortzeko borroka egingo du.

Datorren urtean gutxienez aurtengoa berdindu eta ahal bada irabazteko itxaropena dauka, "baina azkenean batek irabazten du. ZX kopan 'turismo' sailean parte hartu duten pilotok dabilta, eta oso atsegina da esperientzi handiko jendearekin lehiatzea. Ni AX-en nebilenean harrituta egoten nintzen beraiei begira, ze abiadura hartzen zuten BMWarekin. Esperientzi handiko jendea da", dio Mostajok.

Hurrengo pausua turismoetan lehiatzea izango litzateke baina horretarako arazoa dirua da. "Ni ez naiz profesionala, baina afizionatua ere ez naiz kontsideratzen, dedikazio handia eskatzen baitu honek". Turismoetan profesionaltasuna beharrezkoa da, diruak agintzen du, 12-14 piloto daude eta hauetatik 6 atzerriarrak. "Pribilegiatu batzuen munduan sartzen gara. Zaila dago baina saiatu beharko gara. Milioi askotako aurrekotua da". Helburua profesional izatea du eta bera datorren urtean saiatuko da. "31 urte ditut eta garai onean nago, beste 8 bat urte geratzen zaizkit. Agian adin gehiagorekin ez zara azkarrago joaten baina auto gutxiago txikitzen da eta horrek ere balio du".

Abiadura zaletasuna

Momentu honetan bere babeslea Madrilgo La Torre desguazea da. "Hemen ez dugu batere aurkitzen. Kirol honetarako zaletasuna badago baina lasterketa kultura falta da, zaletasun hori bideratzea. --dio Alfredok-- Zirkuitu bat guztiz beharrezkoa da. Jendeak ikus dezala zer den kirol hau. Cartagena eta Albaceten



Ormaiztegin ezaguna dugun Alfredo Mostajo, Jaramako podiumean, urriaren 13an.

zirkuituak daude eta Euskal Herrian ez". Entrenatzeko gertuen Frantzian Paben daukate eta bestela Madril. "Gazteei auto izugarrien publizitatea eskeintzen die, baita edari alkoholikoa ere. Larunbat gauean atera eta txistu bizian ibiltzen dira, baina ez zaie beste irtenbiderik ematen. Kotxe zahar bat erosi zirkuitu batean sartu eta bira-ka ibiltzeko aukera balute, larunbat gauean ez zuten astakeriarik egingo eta agian lehenago erretiratuko lirake hurrengo goizean zirkuitura joateko".

Ez du kirol arriskutsutzat hartzen, dituzten segurtasun

neurriekin arriskua asko jeisten da. "Buruko lan bat da, nahiz eta prestaketa fisikoa garrantzitsua izan. Kontrolatu egin behar zara, ezin zara pasatu. Arrisku fisikoa gain, ezin duzu lasterketa bakoitzean auto bat txikitu. Hor dago muga".

Fisikoki entrenatzeko txirrindua egiten du gehienbat. Autoz, hasera batean bira asko egin behar badira ere, gero bira gehiago egiteagatik ez da hobe-etzen. Orduan bira gutxi ematen ditu baina haiek onak, bizkor. Horretarako pneumatikoak ondo behar dira, motorra

puntuari etabar. Autoa gehiegi egurtu gabe, bira batzuk eman. Lasterketan ere 60-70 kilometro inguru egiten dituzte, ordu erdiko lasterketa, autoak gehiegi ere erre gabe.

"Piloto on bat pistan ona izateaz gain, fisikoki ondo egon behar da eta despatxuetan lan ugari egin behar du, baita prentsari begira ere. Zenbait piloto oso onak ez izan arren, asko mugitzen dira, asko ikusten dira eta irudi bat salduz dirua dute, eta dirua duena aurrean dabil. Triste da baina horrela da".

M. A.

SAGARNA



ARRANDEGIA

☎ 88 68 73 (denda) ☎ 16 02 01 (etxea)
Zumalakarregi, 4 ORMAIZTEGI

MURUA harategia

- Bertako haragia
- Odolki eta txorizoak



Maiora plaza
ORMAIZTEGI

☎ 88 27 64

EKAITZ

TABERNak jai
zoriontsuak opa dizkizue

☎ 88 27 71 ORMAIZTEGI

ORMAIZTEGI

Giro ederra lehen festa egunetan



Lehenengo larunbatean, hilak 23, egun elegantea eta umeen eguna ospatu zen nola-bait aurtengo herriko jaiei hasera emateko asmoz. Hain zuzen egun horretan gure herriko kaleak erabat apaindutako jendez bete ziren. Haurrek ere beraien festa eguna izan zuten eta hori ospatzeko Azkona taldearekin berriketan aritu ziren. Ondoren txokolatea dastatzeko aukera ere izan zuten.

Igandean, berriz, goizean mendiko bizikleta proba ospatu zen eta hori bukatu bezain laster Gabiriko Goruntz taldea prest izan zen beraien dantza ikuskizuna

eskaintzeko. Dantza talde hau benetan ongi aritu zen bertaratutako jendeari saio bikaina eskainiz.

Dantzaldiaren ondoren herri kirolak izan genituen ikusgai. Bertan 4 aizkolari aritu ziren lehian: Peñagarikano, Aierbe, Mugerza eta Elorriaga. Harrijasotzen, berriz, maisu den Iñaki Perurena aritu zen. 200 kiloko harri zilindrikoa eta 250eko kubikoa 3 aldiz jaso zituen; ondoren 150 kiloko karra-tua gorputzean biraka ibili zuen; 200ekoa berriz jaso zuen baina oraingoan esku bakarrez; ikuskizun bikainari amaiera emateko 200eko esfera lepoan behin

eta berriz biraka ibili zuen.

Ondoren aizkolariek beraien lana bikotetan elkartuz burutu zuten. Hau da, Peñagarikano eta Aierbe, Mugerza eta Elorriagaren aurka. Lehenengo 4 enbor moztu zituzten, ondoren trontzan 8 ebaki eta korrika enparantzari 25 bira eman zizkieten. Lan hau lehenengo burutu zutenak Mugerza eta Elorriaga izan ziren. Hala ere guztiek ikuskizun bikaina eskaini zuten, bertaratu-tuen txaloak jasoaz.

Lehenengo festa asteburak ikuskizun guzti hauek ekarri bazituen ere, oraindik herriko jaiak ofizialki hasteko dauden honetan, herritar guztiei baita festa egun hauetan herrira hurbilduko zaretenoi ere jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

Goierriko odol emaileei omenaldia

Aurtengoan Goierriko Odol Emaileei elkarteak eskaini zien omenaldia gure herrian burutu zen. Omenaldi egun horretako ekitaldi nagusiak, odol emaile omenduei domina jartzea eta elkartean

ospatu zuten afaria izan ziren.

Omenduak Goierriko 49 odol emaile izan ziren. Omenaldia jaso zuen herri-tarra Joxe Murua izan zen. Odol ateraketetan laguntzaile izaten dituztenei ere beraien esker ona adierazteko asmoz oroigarriak banatu zizkieten hain zuzen: Iñaki Autozerbitzua, Pablo Harategia, Deba Harategia eta Elozegi Ardoteigari. Elkar-tearen sortzaileetarikoa den Pablo Lasari ere oroigarri baten bitartez bere lana eskertu zioten.

Afarian 155 odol emaile elkartu ziren eta berarekin eman zioten omenaldi egunari amaiera.

Ordulari eta monedero bat jaso dira

Udaletxean aspaldidanik kalean aurkitutako ordulari eta monedero bat daude jasoak. Norbaitek berauetarikoren bat galdu izanez gero nahikoa du Udal bulegoetara hurbiltzea.

Aitziber Murua

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 88 60 70

BEASAIN

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea

☎ 88 40 57

ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7

☎ 88 80 29

BEASAIN

BEASAIN

Pedro Jose Iguain musikariari omenaldia

Pedro Jose Iguainen jaiotzaren 100. urteurrena betetzen da aurten. Bera alegia-rra izan arren, musika munduan pisu handiko gizona izan zen Beasainen.

1924an herriko bandaren zuzendari postua oposaketen bidez lortu ondoren, elizako organua jotzen zuen eta beste zenbait betekizun bere esku zituen. Gerra ondoren, abesbatza bat sortzeko ideia bururatu zitzaion eta egin ere egin zuen. Gaur egungo Loinatz abesbatza-
ren oinarriak izan ziren. 1948an Donostiako 'Masas Corales' zeritzon lehiaketan, Loinatz abesbatzak lehen postua lortu zuen Iguainen pieza batekin: Lau atso.

Gipuzkoan abesbatzei dagokienez, gizon esanguratsua izatera ere iritsi zen, baina lan kontuak zirela eta, Argentinara joan zen 1950ean. Bertan ere pertsonaia aipagarria izan zen, beste gauza batzuen artean, Palito Ortigaren organu jolea izan zen. Abesbatzen inguruan lan handia egin zuen, baina baita ere musika bandari dagokionez. Garai hartan banda militarrek ziren nagusi eta Pedro Jose Iguainek banda zibiletako zuzendarien taldea sortu zuen. Bere lehendakari ere izan zen.

Beasaingo historian aipagarria izan zen Pedro Jose Iguain, hori dela eta, bere jaioterria den Alegia eta Be-



asainek omenaldia egingo diote bere jaiotzaren 100. urteurrenean, azaroaren 30ean Beasainen eta abenduaren 1ean Alegian. Beasaingo ekitaldia arratsaldeko 7.00etan hasiko da Udaletxeko Batzarre-Aretoan. Jose Luis Ansorena Erenbilleko zuzendariaren eskutik Iguaini buruzko hitzaldia emango da; saioa audizio batzuekin lagundua egongo da. Ondoren Alegi eta Beasaingo abesbatzek zazpina abesti eskainiko dituzte Parrokian. Iguainek konposa-

tutako abesti bana ere eskainiko dute. Loinatz abesbatza-
ren zuzendaria den Xabier Sarasolak esan digunez, Iguainen bi pieza eskaintzen saiatuko dira, baina bere obra gehienak oso zailak dira, tesitura oso altuak dituzte, berak gizonetzko askoz osatutako abesbatzetarako partiturak egiten baitzituen. Horrez gain, estilo eta armonia aldetik asko landutako piezak egin zituen Iguainek, Sarasolak argitu digunez.

Txisturako fandango eta arin-arineko zenbait partitura ere aurkitu denez, kontzertuan Txistulari Bandak berauek interpretatuko ditu. Abesbatzak omendua-
ren Ave Maria batekin amaituko du kontzertua. Omenaldira musikariaren semea den Jesus Iguain etorriko da.

Igartza saririk ez

Hirugarren Igartza abentura eta misteriozko nobela-saririk ez ematea erabaki du aurten ere epaimahaiak. Pa-

ko Aristi, Joxemari Iturralde eta Koro Navarrok osatu zuten epaimahaia. 4 lan aurkeztu dira sariketara.

San Nikolas

'Euskaldunon Egunkaria'-ren aldeko San Nikolas eske-
a egingo da aurten ere, abenduaren 6an. Baserritarrez jantzita, bertsolari eta trikitilarien laguntzaz, hainbat kopla abestuko da. Irteera iluntzeko 7.00etan izango da, Barrendain plazatik. Aurretik entseiatu nahi izanez gero, jarraian duzue koroan abesten den kopla<.

Abenduaren 6a gaur dugu, San Nikolasen eguna, euskaldunon denon egunkaria, laguntzea nahi duguna.

Geurea Ikastola

Hauxek dira Geurea Ikastolak datozen egunetarako antolatu dituen ekintzak. Abenduak 1, Lareoko urte-
gira irteera, goizeko 10.00etan Bideluze plazatik abiatuta. Abenduak 6, San Nikolas eguneko festa, 'Euskaldunon Egunkaria'-ren aldeko eskean parte hartuko dute lehenengo eta ondoren taloak jateko aukera izango da.

Euskal liburu eta disko azoka

Aurten ere antolatu du AEK euskaltegiak, Euskara-batzordearen laguntzaz, euskal liburu, disko eta jokoen azoka. Abenduaren 11tik 24ra izango da, Kale Nagusiko 32. zenbakian, behean. Egunero egongo da zabalik, arratsaldez. Astearte eta larunbatetan baita goizez ere.

Izaskun Salazar

Gurutze Gorria

Gazteen Gurutze Gorriak, Udaleko Gazteria eta Kirol sailarekin batera, 'Aprobetxatu zure astialdia' lemapean, Osasunaldia, formaziorako zikloa antolatu du datozen egunetarako. Istripuen prebentzioa eta lehen laguntzak; eta odol eta organo emaileak gaiak jorratu dituzte aurreko egunetan. Gaur bertan, azaroak 29, elikaduraz hitz egingo dute, 19:30etan, Gurutze Gorrian sedean bertan. Abenduaren 2an, drogomenpekotasuna gaia eta abenduaren 4an, HIES gaixotasuna jorratuko dituzte. Bi hitzaldi hauek ere, 19:30etan izango dira, Gurutze Gorriko bulegoetan. Dohainik izango da guztia.

GABIRIA

Izar Aundiko Isabelek irabazi zuen I. Errezil Lehiaketa



3 epaile eta 3 sarituak: Martin Irazustabarrena, Izar Aundiko Maria Isabel, Iru-Bideko Gabriel, Oñatibi Txikiko Miren, Joxe Antonio Iparragirre eta Antton Olaizola.

I. Errezil Sagar Lehiaketa eta baserriko produktuen azokak arrakasta handia izan zuen. 14 baserriar aurkeztu ziren lehiaketara. Antolatzaileak gustora daude, egun arrakastatsua izan baitzen. Eguraldiak ere lagundu egin zuen eta jende ugari etorri zen herrira, bai herritarrek, bai kanpotarrak.

Herri mailako lehiaketa izan da lehenengo edizioa, eta bigarrena ere hala izatea erabaki dute Erbie elkarteko antolatzaileek. Gainera bigarren ediziorako partehar-

tze handiagoa izango dela-koan daude, igandeko giroak baserriar gehiago animatu baitu. Igandekoaren ondorengo balorazioa egin zuten antolatzaileek.

Balorazioa

Joan zen igandean, azararak 24, ospatu zen gure herrian Lehenengo Errezil Lehiaketa "Erbie" elkarteak eta Udalak antolatuta, eta ezer baino lehen antolatzaileon eta herritar guztion esker ona azaldu nahi nieke bertara hurbildu zi-

ren guzti-guztiei. Jende de-xente espero bagenuen ere, ez genuen asko uste hainbeste etorriko zirenik, eta horrek, jakina, irabazleak irabazle, izugarritzko poztasuna eta adorea ematen digu datozen urteetan ere antolatzen jarraitzeko.

Ondoren, aipamen berezia egin nahi nieke hutsaren truke lanean aritu ziren hiru epaimahaikoei: Añorgako Antton Olaizolari, Zeraingo "Otatza" sagardotegiko Joxe Antonio Iparragirreri eta azkenik Martin Irazustabarrena zaldibitarrari. Mila esker hiruroi.

Azkenik, lehiaketa honetan parte hartu duten herritar guztiei ere eskerrik asko eta zorionik beroenak aurtengo hiru irabazleei: Izar Aundiko Maria Isabeli; Iru-Bideko Gabrieli eta Oñatibi Txikiko Mireni.

Eguraldia ere nahikoa portatu zen eta egun ederra igaro genuen igandean, saltzaileek sagar eta baserriko produktu asko saldu zuten baina, hala ere, oraindik ere geratzen zaigu errezil sagar ederrik gure herrian norbaitek erosi nahi izanez gero.


VOLVO
 **TOYOTA**

ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN



Rubiorena jatetxea

EGUNEROKO MENUEN ZERBITZUA

berriro eskaintzen dizuegu

- **Egunekoa**
- **Lanekoa**
- **Dastatzekoa**
- **Karta**

(GUZTIAK ASTELEHENETIK OSTIRALERA)

Gainera asteburuetako MENU BEREZIEKIN jarraitzen dugu

Tfnoa.: 88 57 60

ORDIZIA

Liburua protagonista



Abenduaren 1era bitartean liburu azoka izango da Joxemiel Barandiaran plazan. Antolatzaileak: Euskadiko liburu azoken batzordea, Bizkaiko eta Gipuzkoako liburu saltzaileen elkarteak, eta Euskadiko eta euskal editoreen elkarteak. Barandiaran plazan jarri dituzten txabolatxoetan, Baga Biga (Ordiziakoa), Bilintx eta Urretxindorra liburudendak; Elkar, Lur, Planeta eta Instituto Heraldico argitaletxeak; Zabaltzen banatzaile etxea; eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren materiala egongo da salgai.

Lanegunetan, goizeko 11.30etatik 14.00etara eta arratsaldeko 17.30etatik 21.30etara egongo da zabalik. Jaiegunetan, eguerdiko 12.00etatik 14.30etara eta arratsaldeko 17.30etatik 22.00etara.

26an egin zen azokaren aurkezpena. Juanbi Erauskin alkatea, Patxi Plazaola

Eusko Jaurilaritzako Kultura Saileko Gipuzkoako ordezkaria, eta Asier Muniategi Euskadiko Liburu Azoken Kanpainako koorditzailea izan ziren bertan. Azaroak 30, larunbatean, berriz, T.S. Antzerki taldeak 'Capitan book' bere azken lana aurkeztuko du, Joxemiel Barandiaran plazan bertan.

Euskadiko Liburu Azokaren batzordeak jakitera eman digunez, orainarteko

libururik arrakastatsuenak edo salduenak honako hauek dira: euskarazkoetan, Joxean Sagastizabalen 'Kutsidazu bidea Ixabel', Bernardo Atxagaren 'Zer hoiek', Ramon Saizarbitorriaren 'Hamaika Pauso', Iñaki Zabaletaren '110 Street-ko geltokia', eta Juan Luis Zabalaen 'Galdu arte' liburuak dira.

Azkeneko nobedadeak ere bertan izango dira, bai liburuetan, bai diskoetan.

Liburu astea

Hurrengo astean ere liburua izango da protagonista herrian. Udal liburutegiak antolaturik, honako ekintza hauek izango dira:

Abenduaren 2tik 5era esaterako, 'Nola egiten da liburu bat' erakusketa izango da ikusgai Barrena Kultur Etxean. Abenduaren 3an, Patxi Zubizarreta ordi-

ziarrak 'Literatura' gaiari buruzko hitzaldia eskainiko du, 19:30etan, Barrenan. Abenduaren 4an, azkenik, Victor Morenok 'El deseo de leer' gaia aztertuko du.

Ardoaren astea

Abenduaren 9tik 15era bitartean, 'Araba Errioxako Ardoaren IV. Astea' ospatuko da herrian. 'Araba Errioxako ardoak' gaiari buruzko erakusketa izango da aste osoan zehar, Barrenan. 10etik 13ra, dastaketak izango dira, eta 14 eta 15ean, azoka Plaza Nagusian. Hurrengo alean izango duzue informazio gehiago.

Lanik gabe zer?

Galdera horri erantzuten saiatuko dira abenduaren 3an, iluntzeko 7.15etan, Kutxaren bulegoan. Tomas Etxabe izango da hizlaria. ESK-CUIS sindikatuak antolatu du hitzaldia.

Asto kaleko jaiak

Inoiz ez bezala, Asto kaleko jaietako asto karreran emakumezkoak izan ziren protagonista. Historian lehengo aldiz 5 emakumezko eta 2 gizonezko hartu zuten parte asto gainean. Lehenengo hirurak gainera, emakumeak izan ziren: Pili Otegi, Jaione Gaztañaga eta Rosa Goitia, ordena honetan.

Munduate erlojutegia

Historia luzeko denda da Munduate erlojutegia. Laugarren belaunaldia da bertan dagoena, erlojuak konpondu eta konpondu. Dena den, albistea ez da erlojua. Munduate erlojutegiaren parean, Munduate bitxidenda irekiko dela baizik.

1883. urtean sortu zen Munduate erlojutegia. Migel birraitonak ireki zuen. Harrez gero, Juan Ramon, Gregorio eta orain Joxe Ramon ari da lanean. Migel birraitonak dena nola ireki zuen esan digu Joxe Ramonek. "Udalak elizako erlojua konpontzeko deia luzatu zuen, aurrekontuak eskatu zituen. Migel Ataungo artzaina zen. Aurrekontua aurkeztu zuen, 3 urteko garantia eta 3 urtera kobratzea proposatu zuen. Onartu, konpondu eta handik aurrera sortu zen gutzia".

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak
Mantak - Mairidireak - Mahai oihalak
Toallak - Gortinak eta osagialak

M. Zeberio
88 00 84

J. M. Barandiaran Plaza
ORDIZIA

EZKURRA ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak



16 07 50
Faxa: 88 09 13

Domingo Unanue, 2
ORDIZIA

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 16 22 56 ORDIZIA

SEGURA

75 urtez San Nikolas jantzten



Igeltseroneko Maria eta familiakoak, iazko kantu eskean ibili ziren San Nikolas eta neska-mutikoei fruituak, gozokiak eta dirua botatzeko.

San Nikolas eguna, ostiralean, abenduaren 6an ospatuko da. Goizeko 10:30etan parrokiaren emango den mezaren ondoren, San Nikolasen aldarean bedeinkazioa eginda, portikopean zain izango duen Abaltzisketako poney baten gainean jarrita Jermanenera abiatuko da obixpotxo, neska-mutiko koadrila atzetik duela, kantu eskeari ekiteko. Kale Nagusitik igota, plaza gurutzatu, Erdiko Kaletik beheraino-jaitsi eta Baztarkaletik gora abiatuta, Akelarre, Itturiberrialdea eta Gain Argi pasata, bikarioaren etxe aurrean amaituko dute. Ondoren poney eta guzti, komentuko lokutoriora sartuko dira bertako mojei kantatzera.

75 urte egingo ditu aurtengoarekin Sakristaueneko Ramona Lezetak, San Nikolasen jantzia garbituz, zainduz eta gordez. Egiteko hau bere aurrekoengandik datorkio: "Orain 30en bat urte miatra berria egin eta hurrez gero puntilla batzuk ere berritu zaizkio jantziari; gainerakoan ez du alda-

ketarik izan nere arduran geratu zenetik". Hara joan behar du egun batzuk lehenago San Nikolas jantziko den mutikoak, jantzia probatu eta jasotzera. Aurten 6 urte dituzten Laiotz Herri Eskolako artean, azaroaren 22an egin zen zozketan, Joseba Suarez Etxeberriari tokatu zitzaion San Nikolas jantzeko ohorea.

Arratsalde pasa

Udalaren baimenaren zain badaude ere, Segurako Gazte Asanbladakoek, gazteen arteko harremanak sendotu asmoz, arratsalde antolatu dute abenduaren 6rako. 17:00etarako, bertara azaltzen diren artean, futbito

partidua dago iragarria. 19:00etan poteoa, trikitixa lagun dela. 21:30etan afaria portikopean; 50en bat laguntzako zopea, redondoa eta flana izango da eta afari txartelak tabernetan jarriko dira salgai. Afalondoren, plazan, hainbat joku izango dira bertaraten direnentzat. Baserritar jantzita azaltzeko deia egin dute.

Dantza Ikastaroak

Elorri Kultur Elkarteak antolatuta, urte hasieratik San Joanak arte iraungo duen Dantza Ikastaro berrirako bilera antolatu da. Abenduaren 12an, 17:00etan, Kultur Etxean, partehartzaile, guraso zein irakasleek, talde, egun, ordutegi eta dantza motak antolatu eta zehaztuko dituzte. Aurtengoan, irakasle berriak izango dira, Aiert Izagirre herritarra eta Eider Garmendia beasaindarrak.

Pelota

Klubaren arteko Gipuzkoako txapelketako partidua aste-bururako: **seniorrak:** Joaneko partidua 22-21 irabazita, Iñaki Artolak eta Ibon Etxeberriak final laurdenetako itzulerakoa Azkoitiko Garatze-Balardiren aurka dute, zapatuan, 30ean, 12:00etan, Baratzte pelotalekuan. **Juniorrak:** Xabier Etxeberriak eta Jon Ander Hombrek, jaien, 1ean, Altzako Boskotarren kontra irabazi beharra dute final aurrekoetarako sailkatzeko.

Futbola

*Asteburuko

emaitzak: Infantilak: Aizkorri 3-0 Eibar. **Kadeteak:** Mundaiz 4-3 Aizkorri. **Jubenilak:** Ilintxa 0-0 Segura. **Errejonialak:** Intxaurren 7-2 Segura.

*Asteburuan etxean: **Jubenilak:** Segura-Aretxabaleta, zapatuan, 16:00etan. **Kadeteak:** Aizkorri-Mariño, jaien, 16:00etan.

Labur labur

● Pasa den azaroaren 23tik 24ra, herriko plazan akanpatuta, **24 orduko baraualdia** egin zuten 15en bat herritarrek, euskal presoak euskalerriratzeari eskatuz.

● **Inuttillen afarie,** aurtengoan, Atsedenen izango da azaroaren 30ean. Dagoeneko 15en bat *inutillek* eman dute izena. Aurrez, trikitixa lagun dutela, 19:00etan elkartuko dira Antonkalenen.

● Diputazioko Kultura sailak Gipuzkoako historia eta arte-ondarea berreskuratzeko aurrekontua bikoiztu egin du. Hori dela eta, Gipuzkoako beste eraikuntza batzuren artean, **Segurako Jasokunde eliza** zaharberritzen jarraitzeko dirulaguntza izango da.

● Abenduaren 4a **Santa Barbara eguna** bada ere, Asentzio egunean, maiatzetan ospatzen da. Egund berean ospakizunak ez duen ermita bakarrenetakoa da Seguran. Garai batean, Katarretakoek meza ateratzen omen zuten Santa Barbara egunean.

● Segurako udalak ezezkia eman dio Etxegarateko autobideko bidesariari. Honek Segura eta Zegama bezalako herrientzat ondorio kaltegarriak izango lituzke. Informazio gehiago 10. orrialdean.

Joseba Telleria



Azaroak 30, San Andres eguna, jaien, abenduaren 1ean ospatuko da herriko eraikuntzarik zaharrena den San Andresko ermitan. 12:30etan izango da meza eta ondoren, Udalaren laguntzaz eskainitako haiaiketako eta herriko txistularien saioa elizatarian.

ZEGAMA

San Nikolas 3. mundurako eskean

Orain artean Herri Eskola-ko 8. mailakoak ibiltzen ziren San Nikolas eskean, ikasketa bukaerako bi-daiarako dirua biltzen. Aurten, DBH edo ESOa dela eta, Beasaina joan behar izan dute adin horretako ikasleek. Era honetan, aurten lehenengo aldiz, ikasketa bukaerako bi-daiarako dirua bildu ordez, 3. mundurako dirua bilduko dute.

Joseba Berasategi izango da aurtengo San Nikolas. Hori bai, kalean bakarrik ibiliko dira eskean, base-rietara joan gabe.

Amezti elkarteak

Amezti elkarteak sortu da herrian. Gastronomía, kultura eta aisialdirako txoko edo elkarteak antolatzea nahi da eta lokalaren egokitze lanei ekin zaie.

Egun Amezti elkarteak 31



San Martin azoka

Giro onean ospatu zen aurten ere San Martin azoka. Egu-raldiak ere lagundu zuen eta partaidetza zabala izan zen lehiaketan. Sariak honela banatu ziren:

Ardietan: Joxe Migel Azurmendik irabazi zuen. **Bildotse-tan** Patxi Katarainek. **Etxe behorretan** Joxe Domingo Ariztimuñok. **Mendi behorretan** Juan Migel Larreak. **Zaldietan** Joxe Mari Azurmendi Gorostizu. **Behin pinte-tan** Joxe Andres Azurmendi. **Behi suizetan** Mari Karmen Argüelles. **Behi mestizetan** Santiago Katarain 'Txatxipi'. **Zezenetan** Santiago Katarain 'Txatxipi'.

zegamarrek osatzen dute, eta deialdi zabal honen hel-burua, egitasmo honetan in-

teresatuak zaudetenoi, ber-tako partaide izateko aukera luzatzea da.

Honenbestez, interesatu-ta bazaude edo edozein kezka sortzen bazaizu, Emilio Txurruka, Jesus Mari Larrea, Juan Inazio Galdos, Inazio Otaegi edo Luis Otaegirekin harremanetan jar zaitezke. Gogora ezazu, eskaerak aurkezpen ordenaren arabera eran-tzungo direla.

Parke Naturala

Datorren abenduaren 4an, iluntzeko 8.00etan, Aizko-rriko Parke Naturalari bu-ruz beste informazio hitzal-di bat antolatu du batzorde informatzaileak. Oraingo honetan Asun Urzainki izango da hizlari. Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Partzoneriari buruz da-goien liburu bakararren egi-lea da Urzainki.

Eduarne Albizu

ATAUN

On Joxe Miel Barandiaranen heriotzaren 5. urtemugako ekitaldiak prest



Euskal mitologiako pertsonaiak Udaletxeko erakusketan egongo dira ikusgai.

Joxemiel Barandiaran-Mur-kondo Kultur Elkartek, hainbat ekintza antolatu du On Joxemiel hil zeneko 5. urtemuga honetan. Aben-

duaren 4an hasiko dira eki-taldiak, 'Lehen gizona' gaiari buruzko hitzaldi-dia-positiba emanaldi batekin. Bukatu, berriz, beti bezala,

lore eskaintzarekin. Jarraian duzue informazio zehatza.

Abenduak 4, asteazkena: Hitzaldi-diapositiba proiektzioa, Joxean Mujika beasaindarraren eskutik. 'Lehen gizona' gaia aztertuko dute. San Gregorion, iluntzeko 8.00etan.

Abenduak 14, larunbata: Hitzaldi-afaria Urbitarte sagardotegian, 20.00etan. Gaia: sagarra eta sagardoa. Hizlariak: Zapiain sagardogilea eta Larrañaga Diputaziozko teknikaria.

Abenduak 20, ostirala: Joxemiel Barandiaran eskolan ipuin lehiaketaren sari banaketa, arratsaldeko 3.00etan.

Abenduak 21, larunbata: Ikusentzutekoa Joxe Ramon Agirre 'Marron'-en eskutik. Gaia: 'Itsasoei begira'. Meza ondoren, Aia auzoan.

Abenduaren 22tik 29ra: 'Ekilore, gure arbasoen ondare mitikoa' erakusketa, Udaletxean.

Abenduak 31, asteartea: Lore eskaintza 12.00etan.

IDIAZABAL

Softboleko finala Ezolatzan



Udan egin zen herrian sofbol ikastaroa.

Azaroko azkeneko larunbatean (hilaren 30ean) senior mailako neskek Softboleko Lehendakari Koparen finala jokatu dute herrian. Arratsaldeko 3.30etan hasita Ezolatzan Irungo San Martzial taldea eta Getxoko Haritzak edo Pabeko Pumas taldeak (bien arteko partidua irabazten duena) arituko dira jokoan.

Sofbola beisbolaren antzeko kirola da. Bateak, eskularruak eta pilota erabiliz jokatzen da. 9 jokalariko taldeak izaten dira eta partiduetan 7 jokaldi irauten ditu,

denbora horretan talde bakoitzak ahalik eta korrikaldi gehien egin behar du. Gure inguruan batez ere neskak aritzen dira kirol honetan nahiz eta mutilen taldeak ere badauden.

Herrian kirol ezaguna da dagoeneko, izan ere udan 30 lagun aritu ziren sofbol ikastaroa egiten kiroldegian.

Pilar Enea

Pilar Enean Zaharren egoitza nola egin daitekeen aztertzeke eta proiektu horri irtenbide bat emateko ba-

tzorde berezia sortu da herrian. Azaroaren erdialdean bildu zen estrainekoz batzordea eta 18 lagun izan ziren bertan. Hirugarren adinekoren egoera aztertu eta herriko Zaharren egoitzak nolakoa izan behar duen izan zuten hizketagai. Herrian informazioa zabaldu eta jendearen interesa pizteko jardunaldi batzuk antolatzea ere pentsatu zuten.

Batzordean parte hartu nahi duenak Udaletxera joan besterik ez du, bertan emango diote informazio gehiago.

San Blasak

Herriko festetarako bi hilabete falta dira, eta festa komisia lanean ari da dagoeneko. Ostiralero izaten dira bilerak Kultur Etxean eta festa komisioak herritar guztiei deia egin die antolaketan lanetan parte har dezaten.

Hurrengo San Blasetarako programa osatzeko argazki lehiaketa ere antolatu du Kultura-batzordeak. 5 argazki eta diapositiba au-

keratuko dira, 4 programa barrurako eta bestea Krosseko kartelean jartzeko. Argazkiak abenduaren 5a baino lehenago eraman behar dira Udaletxera edo Kultur Etxera.

Perretxiku bilketa

Aranzadi Zientzia Elkartek antolatuta, perretxiku bilketa egingo da larunbat honetan (azaroak 30). Adituak irakasle dituela perretxikuak bildu nahi dituenak goizeko 9etan plazara azaldu besterik ez du.

Argazki lehiaketa

Mendi Sailak antolatutako argazki lehiaketan ondoko hauek atera dituzte sariak: argazkien sailean, Gillermo Urrestarazu, Mari Karmen Iztueta eta Nagore Nograro izan ziren lehen hiru sailkatuak. Diapositibetan, berriz, Maitane Urteaga, Nagore Nograro eta Xabier Intxausti izan ziren sariak irabazi zituztenak.

Xabier Urteaga

LEGORRETA

Jota-Kea elkarte bere ezaugarria bilakatuko litzaitekeen armarri edo eskudobaten bila dabil. Hori dela eta, bere aukeraketarako lehiaketa antolatu du parte hartu nahiko luketeen herritar guztientzat. Diseinu lanek ezin izango dute Din A4 folioaren neurria gainditu eta bertan 'Jota-Kea elkarte' kontsigna azaltzea beharrezkoa izango da. Lanak Herri Eskolan, Jubilatuz

Elkarteko Zuzendaritza-batzordean eta Jota-Kea elkartean aurkeztu ahal izango dira abenduaren 13a baino lehen. Argibide gehiago nahi izanez gero Jota-Kea elkartera jotzea besterik ez duzu.

Epaiaharia elkarteko ki-deez osatua egongo da eta aurkezturiko lan guztiekin Kultur Etxean egingo den erakusketan emango da epaia ezagutzera. Lehiaketa

Jota-Kea elkartearen lehiaketa

honetako lehen saria 25.000 pezetakoa izango da. Diseinu lan irabazlea Jota-Kea elkartearen jabetza izatera pasako da. Aurkezturiko lanek nahiko kalitatez ez balute elkarteak ez lukete saririk emango.

Intsumiso izateagatik epaitua

Igor Larrea gaztea azaroaren 27an izan zen epaitua intsumiso izateagatik. Epai-

keta zela eta, ez zen Igorren aldeko adierazpenik falta izan.

Kuadrilen arteko futbola

Joan den hilaren 17an eman zitzaion hasera kuadrilen arteko futbol txapelketari. Partiduak larunbat arratsaldez eta igande goizez jokatu dira Herri Eskolako kirol gunean.

Josune Amondarain

LAZKAO

Maizpide lazkaotar guztientzat zabalik

Aitor Asurmendi zegamarra Maizpide euskaltegiko irakasle izateaz gain ikastorduz kanpoko ekintzak antolatzen aritzen da. Bere zeregin honetaz zera dio: *"Barnetegira etortzen diren ikasleak lan egitera datozen eta ikusten dugu eguneko 6 ikastorduz gain idazlan eta ariketa dextente izaten dituztela eta klasez kanpoko ekintza osagarriak eskertzekoak direla"*.

Bazkalostean zenbait ikastaro izaten dituzte, eskulan, dantza, argazki... Gauzez hilean behin edo bertso saioa izaten da Goierriko bertsolariekin baita diapositiba emanaldi, hitzaldi, ipuin kontalari, antzerki eta kantaldiren bat ere.

Herrian zenbait jende kezatu izan da ekintza gutxi antolatzen direla eta. Maizpinden bertan hileroko gutxienez 3 emanaldi antolatzen dira eta hauek lazkaotar guztientzat zabalik daude. *"Garbi utzi beharra dago Maizpide euskaltegia lazkaotar guztientzat zabalik dagoela"*, dio Aitorrek. Emanaldiak 21:00etan izaten dira barnetegiko zineman eta bertsolariak, berriz, jangelan. *"Lazkaoko zenbait jende etorri izan da. Bertsola-*



Aitor Asurmendi, Aitzol bezala ezagunagoa denak antolatzen ditu Maizpideko ekintzak.

riak jangelan izaten diren arren, jendea ez dedila koldu, lasai sartu, eseri eta bertsoak entzun ditzazke. Bazkalondoko ikastaroetan ere herriko jendeak parte hartu dezake. Interesgarria de herritarrek bertara gerturatzea, euskara ikasleek euskaldunzaharrekin harremana izateko".

Mus eta partxis txapelketak ere antolatu izan dira, hauek Gerriko txokoan jokatzen dira. Uztailera mus txapelketan herriko jendeak beti parte hartu izan badu ere, besteetan ere parte hartu dezake. Ikasleekin bikote eginez, harremanak sendotzeko.

Ekintza hauen berri herrian zehar ematen da. Ikastaro etabarretan parte hartu nahi duenak, berriz, Aitzolli dei dezaiok Maizpideko 889231 telefonora edo Goierriko Euskal Eskolako Joxepari 160282 telefonora.

Txorizugarri lehiaketa

Goierriko Euskal Eskola Kultur elkarteak, Maizpide euskaltegiak eta Gerriko txorizugarri lehiaketa antolatu dute. Edonork har dezake parte, bakarka nahiz taldeka. Izena ematerakoan egilearena edo taldearen arduradunarena adieraziko da. Txorimalo bakoitzak euskarazko esaldiren bat eduki beharko du, eta honen berri ere izenarekin batera emango da. Gainontzean, txorimalo bakoitzak ardatz bat eramango du lurrian zutik eusteko, eta guztira gutxienez metro bateko garaiera izan beharko du. Edozein material erabil daiteke.

Lehiaketa adinaren arabera banatua izango da. Lehen partaideak, 14 urte bitartekoak izango dira, bigarrenak 15 urtetik 60 urte bitartekoak; hirugarren taldekoak, berriz, 60 urtetik gorakoak. Maila bakoitzeko irabazleak eta esaldi onenaren egileak 10.000 pezetako txekia izango du sari moduan, liburu eta disko azokan gastatzeko balioko duena.

Hain zuzen abenduaren 13tik 15era liburu eta disko azoka honetan txorimaloak ikusgai egongo dira, eta epaiaren berri bertan emango da. Parte hartzeko asmoa duen orok Gerriko liburudendan eman dezake izena abenduaren 5a baino lehen.

Kirola lagunartean

Urtero bezala, hainbat eta hainbat dira kirol desberdinak egiteko federatzen diren lazkaotarrak. Honela, urrian hasi ziren federatuta dauden kirol taldeen txapelketa gehienak: futbola, saskibaloia, nesken areto-futbola, pilota, igeriketa eta atletismoa, besteak beste. Kirol hauen berri albiste deigarriak sortzen diren heinean joango gara azaltzen.

Bada, ordea, federatua ez den kirola egiteko aukerarik ere gure herrian. Kuadrilen arteko futbol txapelketa da honen erakusle. Aurtengoarekin, bosgarren urtea bete

du Saltxa Kultur Elkarteak antolaturiko txapelketa honen. 10 taldek eman dute izena eta denek denen aurka jokatuko dute bi itzulitan. 8 lehenek final laurdenak, azkenaurrekoak eta finala jokatuko aukera izango dute. Txapelketa herriko festetan amaituko da. Hona hemen aurtengoan txapelaren atzetik ariko diren talde guztien izenak: Satarratxak, Zatopekak, Zakutok, Seapotok, Osasuna, Sporting de Cojon, Txafilis Boys, Gurutze taberna, Jauregi elektrizitate eta Garages Lazkao.

Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu


**LAZKAO
GARAJEA**
Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
AGENTZIA LAZKAO

EROSKI
KAFETEGIA
gosari - merienda
eguneroko menua
☎ 88 27 93 ORDIZIA


Disco-Shop
Zure disko denda!
K. Nagusia, 42 ☎ 16 19 76
BEASAIN

Baga Biga kultur zentru berria

Ramon Lizarra eta Xabier Dorronsoro beasaindar gazteek kulturgaiak saltzen diren denda ireki berria dute Ordiziako Santa Maria kaleko 37. zenbakian. Disko, liburu, aldizkari eta beste hainbat material saltzeaz gain, zenbait kultur ekintza burutu nahi dituzte, lokalak eskaintzen duen aukera aprobe-txatuz.

Uztailan hasi ziren ideia garatzen. "Lokal majo bat aurkitu genuen Ordizian, eta gauza asko egiteko aukera ematen zuen". Goierri mailan hutsunea nabaritzen zuten era honetako gaietan, eta bereziki Ordizian. Hori bai, ohiko liburutegien aldean ezberdina izan nahi du. "Jendea eroso sentitze-ko, liburuak apaletan jarri ditugu, agerian, eskatu beharrik gabe. Erosteke beste era bat da, ikusi, argumetu irakurri eta gero erosi. Musikarekin ere berdintsu,



bertan entzuteko aukera dago. Material alternatiboa ere badaukagu, bai Euskal Herrikoa, bai Madril aldekoa. Eskola materiala eta kamixetak, txandalak... kultura munduko jantziak ere saltzen dituzte. Euskal literatura eta euskal musika hartu ditugu batez ere oinarri. Erreferentzia puntu izan nahi dugu Goierri", argitu digute.

Dena den, liburutegia eta diskodenda soil bat bai-

no gehiago izan nahi du Baga Bigak. Graffiti erakusketak, diapositiba eta bideo emanaldiak, liburu eta disko aurkezpenak, hitzaldiak... egin nahi dituzte dendaren azpian dagoen lokalean. "Denda soil bat baino gehiago izan nahi dugu. Salmentaz gain beste aktibitate batzuk egin nahi ditugu. Bihurtu nahi dugu kultur gune bat, dinamika polit bat sortu. Lokal falta askotan aipatzen den gaia da eta guk hori eskaini nahi dugu. Era horretako kultur ekintzak nahiko gutxi egiten dira, egiten direnak gainera leku mugatuetan. Beraz, guk hori berreskuratzea nahi dugu. Jendeak erakutsi nahi duen edozertarako irekia dago", azpimarratu nahi izan dute.

Laguntza instituzionalik ez dute jaso bi gazteek dendan hau irekitzerako orduan. Lagunen laguntza, berriz, handia.

Dendako marrazkiak esaterako, Josetxo Sastrek egin dizkie. Musikaren atalean komikietako eta musika munduko pertsonaia nagusiak azaltzen dira. Saiparian, berriz, 'Baga Biga' abestiaren letrak.

Ostiela!

Ostiela! aldizkaria izango da Baga Bigan lehenengoz aurkeztuko den aldizkaria. Azaroren 30ean, eguerdiko 12.00etan izango da eguna eta ordua. Ostielaren 4. alea da aurkeztuko dena. Aldizkari nabarmenena Goierri eta Urola Garaiko 19 idazle eta poeten "antologia-modukoa" da. Erdiko eranskinean Tere Irastortza, Xabier Mendiguren, Jon Mikel Arano, Patxi Zubizarreta, Mielanjel Unanua, Koldo Zubeldia, Mikel Imaz, Jon Imanol Iturrioz eta Pako Azanzak idatzi dute Goierritik. Hauekin batera, besteak beste, Pako Aristi, Edorta Jimenez, Balendin Tramonen idatziak ere irakurgai daude. Ohiko lekuetan dago salgai Ostiela!, 400 pezetan.



ZEGAMA * Ogi integralak

OKINDEGI * Baserriko ogiak

Eskuz egindako ogi naturala


Olaberria Kalea, 6 ☎ 80 10 66 - 67 22 28 (etxea) **ZEGAMA**



ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



Barandiaran

ZERAMIKAK

☎ 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN



La Salle, 1966-67

Beasaingo Loinazko San Martin-La Salleko ikasleak dira argazkikoak. 1966-67 ikasturtekoak, bigarren mailakoak.

Zutik, ezkerretik eskubira: Aseginolaza, Pedro Arribas, Julian Sarasola, Joakin Oiarbide, Zurutuza, Juan Carlos Paris, Enrike Ugartemendia, Evaristo Mendia, Jose M. Ortega, Juan Manuel Sanzo, Victor Muñoz, Iratzustabarrena, Nieto, Juanjo Ruiz, Antonio Lacasa eta Lopez.

Bigarren lerroan: Jose Luis Guridi, Gurrutxaga, Josu Esnaola, Irizar, Lago, Juantxo Martinez, Josetxo Auzmendi, Xabier Sarriegi, Inazio M. Olano, Antonio M. Jauregi, Pedro Luis Uranga, Mata eta Damaso Dominguez.

Hirugarren lerroan: Marzabal, Benito, Martin Artolain, Azurmendi, Jose Roman Perez, Esteban Uranga, Fran Bereziartua, Arana, Alustiza, Palacios, Irastorza, Mikel Arrizabalaga, Leontxo Valverde eta Galparsoro.

Eserita: Karmelo Ormazabal, Juantxo Unanua, Javier Torres, Lorenzo, Juan Mari Garmendia, Muruamendi, Rufino Imaz, Oiarbide eta Juan Manuel Somoza.

URBITARTE sagardotegia



- Egunero irekita, nahiz eta sagardotegi denboraldia bukatu
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN




GALDOS

- Egurrezko zoruak
- Mokatak
- Sintasolak
- Pintura eta barnizatuak

LENZERIA - LURRINDEGIA

Igartza Oleta, 12 ☎ 88 26 89
BEASAIN



MG UAR

**Iluminazio denda
abenduarien 4ean
zabalik**

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 88 86 88

☎ mugikorrak: 908-576580

eta 908-000831

ORDIZIA

GUDARIEN ARTEAN... GUDARI!

Joseba Rezolaren omenaldiko ekitaldiak


Abenduak 10: 'Leizaola, Lizardi, Aitzol. Belaunaldi baten giltzarri' erakusketaren inaugurazioa, Ordiziako Barrena Kultur Etxean.

Abenduak 13: 'Joseba Rezola, Gerra Zibila eta Erresistentziari buruzko hitzaldia' Eduardo Jauregik (Rezolaren biografiaren egilea) eskainia, 20:00etan, Barrenan.

Abenduak 16: Erakusketaren amaiera.

Abenduak 22: Ekitaldi politikoa Ordiziako Herri Antzokian, 12:30etan. Hizlariak: Aitor Oiartzabal (Ordiziako EGiko kidea), Joseba Egibar (GBBko Lehendakaria) eta Xabier Arzalluz (EBBko Lehendakaria).

Abenduak 26: Joseba Rezolaren heriotzaren 25. urteurrena. Eguerdiko 12.30etan, Oroigarriaren agertzea, aurreskua eta lore eskaintza. Ordu batean, luntxa Ordiziako Batzokian.



"Euskadiren alde borrokatu eta hil zen heroi anonimoen belaunaldi haren historia idazteke dago. Ahaztu ezin dugun eredu eta sinbolo bat dira. Gure gazteek ez daukate kanpora joan beharrik beraien poster edo kamixetentzako heroien bila; etxean dauzkate, agian euren familietan. Gure mendieta-ko trintxeretan edo eskursio pe-
lotoi baten aurrean hiltzeko bezain konformagaitz, disziplina-
tu, sakrifikatu, idealista".



KAMIXETAK SALGAI

Txuri beso motza:	1.400 pzta.
Gris beso luzea:	1.700 pzta.
Sudadera (grisa):	3.000 pzta.



NON?

- Ataun: Urbieta jatetxea
- Beasain: Basakana, Arrano eta Loinatz
- Idiazabal: Xume taberna
- Lazkao: Gerriko liburudenda eta taberna
- Legorreta: Olaso taberna
- Ordizia: Arantxa, Herrikoa eta Sarri taberna
- Ormaiztegui: Itxune taberna
- Segura: Elorripe taberna
- Zaldibia: Joxepane eta Kultur Etxea
- Zegama: Txanton taberna
- Zerain: Mandioa